

Elkar!

ko aldizkaria



Xabier Artetxe,
prestatzaile fisikoa

Lurretik
zerura



Derio



Elkarteko kideak diren bi dendatan egindako
10€ baino gehiagoko erosketengatik, 200€-ko
5 txeken zozketan parte hartuko duzu

MAIATZAREN 1ETIK EKAINAREN 29RA

Zozketa ekainaren 30ean, 20:30ean, egingo da Kultur Birikan.

200€ nahi duzu?

GINKANA



Derioko dendetatik pisten
bila ibili eta ibilbidea osatu
KATEGORIAK: 6-10 urte eta 11-14 urte
HASIERA: 2015/05/17
SARIAK: Ibilbidea osatzen dutenen
artean 50 euroko 5 txeki zozketatuko
dira kategoria bakoitzeko
ZOKKETA: Ekainaren 30ean, 20:30ean,
Kultur Birikan.



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkartea Profesionala

aneriik paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio

 **Derio**

 **Derio.com**





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Idoia Andres, Aner Mentxaka, Peru Iparragirre, Juanjo Ortiz, Itxaso Zarate, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saltzuerdortza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vosconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



12 Miren Agur Meabe



22 Sondikako jaiak



28 Olarreta Pilota elkarteak

- 4** Laburrak eta albisteak
- 11** Irudietan... Zeruko erroak
- 12** Gurean izan da... Miren Agur Meabe, idazlea
- 14** Gaztea eta... Adrián Susmozas, gitarra-jolea
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Xabier Artetxe, prestatzaile fisikoa
- 22** Sondikako San Joan jaiak
- 26** Belüba Lüba Fürendeï proiektua
- 28** Elkarteak... Olarreta Pilota elkarteak
- 32** Berbalagunen txokoa... Marisol Bilbao
- 34** Teknologia... Erronka teknologikoak
- 35** Aikorrizketa... Soldaduak eta gudariak
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda



Okerrak zuzenduz

Aurreko alean Txorierriko EAJ eta EH Bilduko alkategaiei egindako elkarrizketak argitaratu genituen. Horien haritik sortu ahal izan diren nahasteak argitzeko asmoz, hurrengoak adierazi nahi ditugu:

1. Publizitate-koaderno bat zen. Alderdi bakoitzak bere orriak ordaindu zituen eta, ondorioz, alkategai bakoitzak bere ustez egokiena zena aipatu zuen bertan. Hala ere, onartu behar dugu akatsa eduki genuela, izan ere, ez genuen argi adierazi alderdi bakoitzak bere orrialdeak ordaindu zituela. Lerro hauetatik eta zintzotasunez, barkatzeko eskatzen dizuegu irakurleoi, EAJ eta EH Bildu alderdion eta alkategaioi.

2. Aldizkarian agertzeko proposamena Txorierriko udalbatzetan ordezkariak dituzten alderdi guztiei egin genien, baina soilik EAJ eta EH Bildu azaldu ziren prest.

3. Erandioko EAJko alkategaiari egindako elkarrizketa ere eman genuen argitara, Erandiogoikoko biztanleengan pentsatuz, EAJk hala eskatu zuelako. Hori EH Bilduri jakinarazi genion eta esan ziguten haiek ez zutela Erandioko hautagaia sartuko.

Lezamako Txakolinaren Eguna

Ekainaren 7an ospatuko dute hamaugarren aldiz, 11:00etatik 17:00etara. Udaletxeko plazan eta haren inguruan 36 postu ipiniko dira ohiko produktuekin: ezti, gazta, euskal pastela, barazkiak, kontserbak... Era berean, Txorierriko sei upeltegiren txakolina dastatzeko aukera egongo da: Garkalde, Magalarte, Basalbeiti, Erdikoetxe, Sasines eta Bitxia. Udal postuan, kopak eta txartelak ipiniko dira salgai.

Kurutze dantza taldea kalejiran intengo da 11:30ean, eta dantzen agerraldia

eskainiko du 11:45ean frontoian. Goizean zehar umeentzako puzgarriak eta tailerrak egongo dira; eta 12:30etatik aurrera, okela-pintxoaren dastatzea. Ekitaldi nagusia 12:45ean egingo da. Kortxoa atera eta txakolingileekin brindisa egingo da. Horrez gainera, plaka bana emango diete Pedro Mari Goikoetxea kazetariari eta Basalbeiti txakolinari. Goikoetxea Lezamako txakolinaren enbaxadore aukeratu dute aurten. Ostean, bertsolariak arituko dira bat-batean. Lontxo taldeak 15:00etatik 17:00etara girotuko du azoka.




hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolanhoa kalea, 8 - 1. izk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móbil: 665 70 33 12




Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

TXORI
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31
Magalarte Txakolina
ARETXARALETAK DUNDA ETA BOTILARATZA
75 cl.
Bizkaiko Txakolina 10,75 % vol.
Denominación de Origen
Lote: 1-45

“Kopleruek” taldekako bertso txapelketaren azken txanpa

*larrabetzuko dharnek
errate, sergio peru eta etxatun.*



*mungiko lapurrek
uraitz, joni, alton eta asien.*

Larrabetzuko Itallen bertso eskolak antolatu du txapelketa Mungia-ko Taket bertsozale elkartearekin batera. Parte hartuko duten taldeak dira Larrabetzuko Akarrak, Gamizko Harroak, Mungiko Lapurrek eta Sasilezamarrek. Plazan urte asko daramatzaten bertsolariek, etorkizuneko bertsolariek eta parrandetako bertsolariek osatzen dituzte taldeok. Izan ere, antolatzaileek adierazi digutenez, “Kopleruek” ez da ohiko txapelketa bat, bertsoa aitzakiatzat harturik, helburu hauek dituelako, besteak beste: ondo pasatzea, bertsozaleetasuna inguruan zabaltzea, oraindik jendaurrean kantatu ez duten bertsolariei aukera ematea eta entzuleen inplikazioa lortzea. Horrela, bada,

ohiko ariketez gainera, beste ariketa errazago batzuk ere egin beharko dituzte parte-hartzaileek, eta epaileak entzuleak eurak dira.

Txapelketa sei saiok osatzen dute. Dagoeneko lau saio egin dira; bi, Lezaman; eta beste bi, Gamizen. “Arduratsu genbiltzan ea entzuleek zelan erantzungo zuten, eta gure itxaropenik onenak ere gainditu ziran. Saioretan itzelezko giroa sortu zen eta bertsolariek, entzuleen babesak hauspoturik, bikain egin zuten bertsotan”. Azken saio biak ekainaren 5ean egingo dira Larrabetzun. Lehena, arrastiko 6etan izango da Gazteleku tabernan; eta bigarrena, arrastiko 8etan, Hori Bai gaztetxean.

*gamizko harroak
ontandor, ibon, mikel eta lenden.*



*sasilezamarrek
nalen, tontor, joni eta leire.*

Saskibaloi eskola osatu nahi dute Txorierrin

Ekimen hau Txorierriko saskibaloi zale batzuek bultzatu dute.

Azaldu digutenez, gure herrietan zaila da saskibaloi taldeak osatzea, eta horregatik pentsatu dute irtenbide egokia izan ahal dela herri guztiak batu eta Txorierrin mailako eskola bat bultzatzea. Egitasmoa edozein adinetako neskei zein mutuei dago zuzenduta eta, futbolaz eta pilotaz gainera, kirola egiteko beste aukera bat ere ematea du helburu. Zehaztu digute eskolak euskaraz emango direla.



Egitasmoa maiatzaren 30ean aurkeztuko dute Zamudion, Agirre Lehendakariaren plazan, hain zuzen ere. Baina euria egiten badu, kiroldegira eramango dute ekintza. Goizeko 11etatik aurrera 3x3 txapelketak egongo dira, KO lehiaketak bikoteka, eta Two-ball bikoteka. Antolatzaileek txorierritar guztiak animatu nahi dituzte Zamudiora joatera eta egitasmoa ezagutu eta bertan parte hartzera. Horrela, bada, mahai bat ipiniko dute informazioa emateko eta izen-emateak jasotzeko. Informazio gehiagorako eta izena emateko, helbide elektronikoko honetara ere idatzi daiteke: txorierribasketeskola@outlook.es.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

EH Bilduk Larrabetzun irabazi du; EAJk, gainontzeko herrietan

Nahiz eta Derion boza gehien jaso, EAJk gehiengo osoa galdu du bertan

Maiatzaren 24an udal eta foru hauteskundeak izan ziren. Txorierrin, EAJk alkatetzari eutsi dio Loiun, Sondikan, Zamudion eta Lezaman. Derion boza gehien lortu duen alderdia izan arren, ez du gehiengo osoa lortu, eta ituna egin beharko du beste alderdiekin. EH Bilduk Larrabetzuko alkatetzan jarraituko du.

Herrika, EAJk zinegotzi bat gehiago lortu du Loiun eta Sondikan; eta beste bi gehiago, Larrabetzun. Hala ere, zinegotzi bat galdu du Derion. Zamudion eta Lezaman, zinegotzi-kopuru bera mantendu du. EH Bilduk zinegotzi bat gehiago eskuratu du Derion, eta zinegotzi bat galdu du Loiun. Gainontzeko herrietan, zinegotzi kopuru bera mantendu dute.

Bestalde, PSOEk zinegotzi bat gehiago lortu du Derion, eta Sondikan zuen zinegotzia mantendu du. PPK Derion eta Sondikan zuen zinegotzi bana galdu du, eta Loiukoa mantendu du.

Tauletan, Erandioko datuak ere ipini ditugu Erandiogoikoko irakurleentzat interesgarriak direlakoan. Bertan EAJk irabazi ditu hauteskundeak. Ganemos Erandiok boto gehien jaso duen bigarren alderdia izan da eta lehenengo aldiz izango ditu ordezkariak Erandion. EH Bilduk, PSOEk eta PPK ere izango dituzte zinegotziak Udalean.

Batzar Nagusiei dagokienez, EAJk 23 batzarkide lortu ditu Bizkaian; EH Bilduk, 11; Podemosek, sei; PSOEk, zazpi; eta PPK, lau.

	DERIO			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	1.295 (% 42,49)	6	1.356 (% 46,42)	7
EH Bildu	877 (% 28,77)	4	607 (% 20,78)	3
PSE-EE	621 (% 20,37)	3	543 (% 18,59)	2
PP	120 (% 44,28)	-	215 (% 7,36)	1
EB-B	-	-	116 (% 3,97)	-
Zuriak	135 (% 4,43)		84 (% 2,88)	
Baliogabetuak	93 (% 2,96)		36 (% 1,22)	
Parte-hartzea	3.141 (% 66,29)		2.967 (% 67,74)	
Abstentzioa	1.597 (% 33,71)		1.408 (% 32,26)	

	LEZAMA			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	698 (% 51,10)	6	603 (% 42,95)	6
EH Bildu	559 (% 40,92)	5	576 (% 41,03)	5
PSE-EE	40 (% 2,93)	-	90 (% 6,41)	-
PP	29 (% 2,12)	-	64 (% 4,56)	-
EB-B	-	-	31 (% 2,21)	-
Zuriak	40 (% 2,93)		40 (% 2,85)	
Baliogabetuak	21 (% 1,51)		25 (% 1,75)	
Parte-hartzea	1.387 (% 72,69)		1.429 (% 73,13)	
Abstentzioa	521 (% 27,31)		525 (% 26,87)	

	ERANDIO			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	4.324 (% 38,44)	9	4.531 (% 40,97)	10
Ganemos	2.156 (% 19,17)	4	-	-
EH Bildu	1.750 (% 15,56)	4	2.112 (% 19,1)	4
PSE-EE	1.728 (% 15,36)	3	2.236 (% 20,22)	5
PP	567 (% 5,04)	1	1.108 (% 10,02)	2
Irabazi	438 (% 3,89)	-	-	-
EB-AZ	108 (% 0,96)	-	-	-
EB-B	-	-	495 (% 4,48)	-
Aralar	-	-	271 (% 2,45)	-
Zuriak	178 (% 1,58)		307 (% 2,78)	
Baliogabetuak	219 (% 1,91)		204 (% 1,81)	
Parte-hartzea	11.468 (% 59,74)		11.264 (% 58,51)	
Abstentzioa	7.728 (% 40,26)		7.988 (% 41,49)	

	ZAMUDIO			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	987 (% 55,02)	7	949 (% 52,55)	7
EH Bildu	660 (% 36,79)	4	548 (% 30,34)	4
PSE-EE	85 (% 4,74)	-	126 (% 6,98)	-
PP	26 (% 1,45)	-	78 (% 4,32)	-
EB-B	-	-	56 (% 3,1)	-
Zuriak	36 (% 2,01)		49 (% 2,71)	
Baliogabetuak	40 (% 2,18)		56 (% 3,01)	
Parte-hartzea	1.834 (% 71,72)		1.862 (% 71,18)	
Abstentzioa	723 (% 28,28)		754 (% 28,82)	

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Osuari-arruiz & Hortz-erretika
HORTZ-IMPLANTAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
BARDURAK ZEIN BILDUK

Dr. Arruiz kalea, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

	LARRABETZU			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EH Bildu	660 (% 54,82)	6	713 (% 57,73)	6
EAJ	492 (% 40,86)	5	475 (% 38,46)	3
PSE-EE	15 (% 1,25)	-	11 (% 0,89)	-
PP	4 (% 0,33)	-	13 (% 1,05)	-
Zuriak	33 (% 2,74)		23 (% 1,86)	
Baliogabetuak	31 (% 2,51)		22 (% 1,75)	
Parte-hartzea	1.235 (% 78,41)		1.257 (% 82,16)	
Abstentzioa	340 (% 21,59)		273 (% 17,84)	

	LOIU			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	785 (% 64,19)	8	756 (% 57,27)	7
EH Bildu	234 (% 19,13)	2	300 (% 22,73)	3
PP	106 (% 8,67)	1	147 (% 11,14)	1
PSE-EE	56 (% 4,58)	-	59 (% 4,47)	-
Zuriak	42 (% 3,45)		58 (% 4,39)	
Baliogabetuak	41 (% 3,24)		40 (% 2,94)	
Parte-hartzea	1.264 (% 68,36)		1.360 (% 71,39)	
Abstentzioa	585 (% 31,64)		545 (% 28,61)	

	SONDIKA			
	2015		2011	
	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA	BOZAK	ZINEGOTZI-KOPURUA
EAJ	1.351 (% 56,67)	7	1.347 (% 53,58)	6
EH Bildu	649 (% 27,22)	3	601 (% 23,91)	3
PSE-EE	176 (% 7,38)	1	240 (% 9,55)	1
PP	125 (% 5,24)	-	237 (% 9,43)	1
Zuriak	83 (% 3,48)		89 (% 3,54)	
Baliogabetuak	37 (% 1,53)		33 (% 1,30)	
Parte-hartzea	2.421 (% 68,43)		2.547 (% 31,89)	
Abstentzioa	1.117 (% 31,57)		996 (% 28,11)	

Sondikan Asuko ibaiak gainezka ez egiteko proiektua

Eusko Jaurlaritzaren Ur Agentziak eta Sondikako Udalak hitzarmen bat sinatu dute, Asuko ibaiak herrian gainezka egiteko arriskua kentzeko. Izan ere, euria gogor egiten duen bakoitzean, arazo asko sortzen ditu ibaiak bertan. Guztira, 2,5 milioi euro gastatuko dira eta hainbat lan egingo dira, batez ere Sangroiz auzoan, Alba enpresaren eta presaren artean. Ibaiaren bidea estua eta arriskutsua da bertan, eta, lanei esker, gaur egun sortzen den inbutua kendu egingo da eta Asuko ibaiko ura errazago igaro ahal izango da. Gainera, Alba enpresa alboan dagoen zubia eta Nakon zubia berritu eta handitu egingo dituzte aurten. Asuko ibaia bideratzeko



proiektua ikusgai jarriko da, herritarrek ikus dezaten eta, nahi izanez gero, iradokizunak edo proposamenak egin ditzaten.

Xake Nazioarteko Opena 17. aldiz egingo da Derion

Derio Xake taldeak "San Isidro" Nazioarteko Openaren XVII. edizioa antolatu du ekainaren 7rako. Txapelketa goizean, jokatu da Kultur Birikan eta parte-hartzaileek 5/6 txandako Suitzako joko-sistema erabiliko dute. Sariak banatuko dira irabazleen artean. Esate baterako, txapeldunak 400 euro eta txapela jasoko ditu; bigarrenak, 250 euro; eta hirugarrenak, 200 euro. Parte hartu nahi dutenek Derio Xake taldeko webgunean dagoen izena emateko inprimakia bete behar dute eta

kuota ordaindu. Kuota orokorra 15 eurokoa da; federatuek 12 euro ordaindu beharko dute; eta Elo fide > 2300 kategoriakoek ez dute kuotarik ordaindu behar izango. Izena ematea derioxaketaldea@gmail.com helbide elektronikora mezua idatzita ere egin daiteke. Parte-hartzaileek datu hauek eman behar dituzte: izena eta abizenak, herria, kluba, adina eta ELO. Informazio gehiago: derioxaketaldea.wordpress.com.

Bestalde, eta ohikoa den bezala, bigarren txanda bukatzen denean, antolatzaileek kopaua eskainiko diete jokalariei.

Garmendia ardoak

Pina pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familen bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Egitaraua

Ekainak 24, eguaztena.

Loiu – Ganguren

–09:00: Loiutik irtetea.

–Bazkaria, bidean.

–Arratsaldean: kanpatzea, eta txalaparta, perkusio eta naturan bizi-raupen-tailerrak.

–Afaldu ostean: masaje gau musikatua.

Ekainak 25, eguna.

Ganguren–Gaztelumendi

–Goizean: gosaria, irrintzia eta mar-txan!

–Bazkaria, bidean.

–Arratsaldean: kanpatzea, puntu tailerra eta “Gazteak eta droga” eztabaida.

–Afaldu ostean: ukimen tailerra eta akelarrea.

Ekainak 26, barikua.

Gaztelumendi–Bizkargi

–Goizean: gosaria eta Bizkargira igotzea.

–Bazkaria.

–Arratsaldean: dantza tailerra eta “Queer mugimendua” eztabaida.

–Eta makina bat gauza gehiago.



Gazteak, martxan

Gazte eragileek Txorierriko I. Gazte Martxa antolatu dute ekainaren 24tik 26ra bitarterako. Martxa hiru etapatan egingo dute: Loiu–Ganguren, Ganguren–Gaztelumendi eta Gaztelumendi–Bizkargi. Gainera, hainbat ekintza prestatu dute etapa bakoitzean egiteko, hala nola eztabaidak, tailerrak eta akelarre bat.

Antolatzaileek azaldu diguten beza-la, martxak baditu zenbait helburu. “Aisialdia kalean landu nahi dugu, naturan, eta kontsumoan oinarritutako eredueta-tik kanpo. Era berean, gazteen arteko harremana sendotzea ere bada beste helburuetariko bat, eta hori parranda ez den beste ekintza baten bitartez egin”. Txorierriko gazte eragileen filosofiari jarraituta, martxa eta horretan zehar egingo diren ekintzak autogestionatuak

izango dira eta gazteek eurek hartuko dute tailerrak-eta zuzentzeko ardura. “Ikasteko modu aktiboago eta parte-hartzaileagoa da. Dakienarengandik, elkarrengandik, ikasteko modua”. Bestalde, aukera polita izango da ingurumena eza-gutzeko eta horrekiko errespetua susta-tzeko. “Memoria historikoa ere landuko dugu. Historialari batek Burdinazko gerrikoari buruzko azalpenak emango dizkigu”.

Martxan parte hartzen dutenek eguaztenerako bazkaria eta afaria era-man beharko dute; gainontzeko otor-duak antolatzaileen kontura izango dira. Kanpatzeko materiala ere eraman behar-ko da. Datozen egunotan ekintzaren in-guruko informazio gehiago zabalduko da gizarte sareetan eta kartelen bidez.

Koadrilen arteko areto-futbol txapelketa

Adarve Pozgarri Derioko taldeak lehenengo aldiz antolatu du koadrilen arteko areto-futbol txapelketa. Txapelketa ekainaren 5etik 7ra bitartean izango da. Gizonezkoen taldeei zuzendutako ekintza da, baina emakumezko taldeek ere parte hartu nahiko balute eta Pozgarri taldeak eskaera nahiko jasoko balu, emakumezkoen txapelketa ere antolatu-ko litzateke. Txapelketan gehienez 12 talde arituko dira eta bakoitzak 50 euro ordaindu beharko du inskripzio mo-duan. Batutako dirua irabazleen artean banatuko da: 300 euro, irabazleentzat;

200 euro, bigarren lotzen direnentzat; eta 100 euro, hirugarren lotzen direnen-tzat.

Txapelketa Derioko kiroldegian jokatuko da eta kanpoaldean txosna bat jarriko dute partidak girotzeko helburua-rekin. “Dirua tartean egon arren, Pozgarri taldeak ez du sosik irabaziko, ezta nahi ere. Izan ere, kirola bultzatu nahi dugu; Derioko lagunak hurbil daitezela, parti-datxo bat joka dezatela, eta gero hiruga-rren zatia egin dezagula txosnan”, esan digu Unai Ezkurra Pozgarri taldeko presi-denteak.



OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN

MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI

LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

Futbol eta saskibaloia kanpusak

Sondikan egingo dira. Lehenengoa CD Sondikak antolatu du eta ekainaren 29tik uztailaren 10era artekoa izango da, 16:00etatik 20:00etara. Futbol kanpusa 2001-2007 urteetan jaiotako gaztetxoei dago zuzenduta da eta zati bi izango ditu: alde batetik, teoria, Sondikako Kultur Etxean emango dena; eta bestetik, praktika, Basozabal zelaian emango dena. Kanpusak 70 euro balio du eta ekainaren 1etik 5era arte eman behar da izena Basozabal zelaian, 19:30etik 20:30era arte. Bestalde, saskibaloia kanpusa Lehen

Hezkuntzako 2., 3., 4., 5., eta 6. mailetan dabilzan neska eta mutilen zuzenduta dago. Uztailaren 13tik 17ra bitartean emango da, 17:00etatik 19:00etara, eta mezu bat bidali behar da gorondagane. basket@gmail.com helbide elektroniko-ra, izena emateko. Sondikakoek 15 euro ordaindu beharko dute; eta gainerakoek, 20 euro. Dirua Gorondagane guraso elkartearen kontu korrantean sartu behar da: Laboral Kutxa 3035 0201 21 2011050443. Informazio gehiagorako: 653014837.



Boxeo-emanaldia, Zamudion

Zamudiobox elkarteak boxeo-emanaldia antolatu du herriko kiroldegian, ekainaren 5erako. Lehenengo borroka 20:00etan hasiko da, eta boxeozaleek guztira bederatzi borroka izango dituzte ikusgai, gizonezkoen zein emakumezkoen kategorietan. Boxeolari txorieritar batzuk ari tuko dira ekitaldian. Esate baterako, Rida Ramdani zamudioztarra Unai Latorreren aurka ibiliko da. Gainera, Zamudioko Patricia Calvo Jessica Salazarren kontra ari tuko da, eta Braian Zapata derioztarra Meikol Andresen aurka. Ixa Rodriguez Euskadiko txapeldunak eta Estatuko txapeldunordeak ere hartuko du parte ekitaldian, baina antolatzaileek oraindik ez dute bere arerioa zehaztu. "Ikuski-zun ederra izatea espero dugu. Gure elkartetik hiru boxeolari ari tuko dira eta batez ere Rida Ramdani azpimarratu nahi dugu, gure ustez laster profesional mailan debuta egin ahal duelako", esan digute antolatzaileek. Txartela bakoitzak 10 euro balio du alde aurretik erosten bada, eta 12 euro txarteldegian bertan erosten bada. Sarrerak salgai jarri dituzte Amaiz, Bide bi, Fernan eta Crazy guitar tabernetan.



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserrinoko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

KAFETEGIA

IAZI JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainduzu Bonuek
Logopedia
Podologia
Klupmasajea

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Tecnierrri etorbidea, 9 - Loriga | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salo - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonaia:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

Peluceria Estetika

GOIZALDE

94 455 81 44
Argumendi 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

Jaiak

San Tomas (Zamudio)

a: Juanjo Ortiz

Ekainak 12, barikua

- 18:00: Bolandera danbadak, jaiak iragarritz
- 20:00: Idi probak.
- 22:00: Sardinak, solomoa eta hirugiharra denontzat
- 22:30: Erromeria, Nakar taldearekin.

Ekainak 13, zapatua

- 14:00: Euskal erromeria.
- 16:00: XXVI. mus-arin txapelketa.
- 17:30: Umeentzako jolasak.
- 18:00: Tortilla txapelketa (umeak eta nagusiak).
- 21:00: Tortillak aurkeztea.
- 21:30: Sariak bananduko dira. Ostein, Kantarelux taldea.
- 23:00: Diskodantza Dja.
- 24:30: Jolas dibertigarriak.
- Jarraian, Diskodantza Dja.

Ekainak 14, domeka

- 09:00: Zamudioko bost ermiten ibilbi-dearen XX. irteera San Tomas ermitatik.
- Bertoko taldeak girotuko du goiza.
- Paella eta Sukalki txapelketak.
- 13:00: Meza, ermitan.
- 14:00: Paella eta sukalki kazolak aurkeztea.
- 18:00: Euskal dantzen agerraldia Zamudioko HIRU-BAT taldearekin. Ostein, paella eta sukalki txapelketen sariak banatzea.
- 19:00: Gazta harrapatzea txapelketa.
- 19:30: Erromeria, Tripileku taldearekin.

Ekainak 15, astelehena

- 12:00: Meza, ermitan, auzoko defuntuen oroimenez.



San Joan bezperako ospakizunak

Zamudio

Ekainak 23, martitzena.

Bidekoetxe parkean

- 19:00: Sutera botatzeko gauzak batzea.
- 20:30: Sua piztea.
- 21:00: Umeentzako afaria.
- 21:15: Helduentzako afaria.



Derio

Ekainak 23, martitzena.

Mikel Deuna plazan

- 19:00: Dantzak, txitxi-burruntzia, txokolatada eta sua piztea.

Lezama

Ekainak 23, martitzena.

Frontoi atzeko landan

- 20:00: Afari-merienda, animazioa, musika, dantzariak, San Joan gaueko kankak, Ekidazu abesbatzaren eskutik, Kurutze dantza taldeko umeak, trikitilariak...
- 22:15: Sua piztea eta abestiak kantatzea.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakan batean
—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



Zeruko erroak

Nork ez du gogoratzen indaba magikoen ipuina? Baserritar gazte batek indaba magikoen haziak landatzen ditu, eta handik gutxira landarea zeruraino hazten da. Zeruan baserritarrek erraldoi batekin egiten du topo. Argazki honetan ematen du erraldoiak arbola landatu duela eta erroak lurrera heldu nahian dabiltzala. Espero dezagun erroldoia lurrera jaitsi nahi ez izatea.

Argazkia: Aner Mentxaka



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



48196 LEZAMA Bidasoa Garaioltza auzoa, 36



S.A.T. LEGU
SERVICIOS DE ASESORIA Y TRATAMIENTO LEGAL

Fu: 94 455 64 17 Tel: 94 455 61 98

“Nire barruko apalak ordenatzeko

a: Peru Iparragirre, Itxaso Zarate

Telefonoz hitz egin genuenean, nahiko lanpetuta zenbiltzala komentatu zenigun. Zertan zabilta?

Zeregin askotan aldi berean: ikastetxeetara joan-etorrian, ikasleekin topaketak egitera; irakurle-txokoetako solasaldiak; eta tarteka emanaldiak edo hitzaldiak ere prestatu behar. Baita literatura ikastaro batzuk ere, Bilboko Esperientzia Geletan. Irakurgai errazen sorta batean ere banabil parte hartzen; eta Elkar argitaletxearen Arian proiektuan, euskara nork bere kasa ikasteko. Lan aldetik estuegi nabil, bai.

Hainbeste zereginen artean, idazteko astirik?

Momentuan ezinezkoa zait idazteko patxada hartzea. Baina oraintsu aurkeztu dut azken liburua, *Bihotzak dun-dun*, ume-entzako kontakizun luzea. Protagonistak, Leak, 9 urte ditu. Aita langabezian geratu da, eta familia kezkatuta dago. Egun batean, zarata handi bat entzungo dute: goiko lizidro agurea jausi da. Eta Learen aita hasiko da zaintzaile (aita, ez ama, apropos). Ondorioz, zaharraren eta neskatxoaren arteko harremana hasi eta garatuko da. Truke horretan, lizidrok gauza asko irakatsiko dizkio umeari, mundu zabalean ibilitako itsasgizona delako; Leak, bere aldetik, lagun egin eta kaleko haize freskoa eramango dio zaharrari.

Idaztea eta bizitzea; gauza bera dira zuretzat.

Adierazpen-batasuna dago nire bizi-penen eta testuen artean. Idatziz jartzean, errebelatu edo argitu egiten zaizkigu ordura arte zehaztugabeak ziren intuizio-

MIREN AGUR MEABE | idazlea

Idazle lekeitiarra maiatzean eduki dugu Zamudion, Lagatzu euskara elkarteak gonbidatuta. *Bitsa eskuetan* liburuaren poemarik esanguratsuenak hartu, eta ozen irakurri zizkigun.



Emakume oparoa

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen 1962. urtean. Irakasle-eskola eta Euskal Filologia ikasi zituen, eta irakas-kuntzan eta testu-liburugintzan aritu da hainbat urtetan. Euskaltzain urgazlea ere bada 2006. urtetik hona.

Batez ere poesia eta umei eta gazteei zuzendutako literatura landu

ditu, eta oso ibilbide oparoa du arlo horretan. Bere lanek hainbat sari jaso dute eta horien artean hurrengoak aipa daitezke: *Azalaren kodea* eta *Bitsa eskuetan* poema-liburuak (Kritikaren saria, 2001. urtean eta 2011. urtean hurrenez hurren); *Itsaslabarreko etxea*, *Urtebete itsasargian* eta *Errepidea* gazte liburuak (Euskadi

saria, 2002. urtean, 2006. urtean eta 2011. urtean hurrenez hurren); eta *Kristalezko begi bat* (111 Akademiaren saria, 2013. urtean). Ohorezko aitortzen artean, Lauaxeta saria (2007. urtean) eta Rosalia de Castro saria (2012. urtean) aipa daitezke. Nazioarteko idazleen arteko topaketetan hartu du parte, eta bere testuotariko batzuk hainbat hizkuntzatar eta brailera itzuli dituzte.

idazten dut"

ak. Zentzu horretan, "nortzea" (neure burua aztertzea) eta zertzea (liburua taxutzea) prozesu beraren bi alderdi bihurtzen dira.

Beharbada, horrexegatik dauka zure barneko munduak isla zure lan literarioan.

Beti idatzi izan dut nire barruko apalak ordenatzeko. Betidanik, idaztearen helburua emozioak gogoeta bihurtzea izan dut, eta gogoeta horiek makulu modura erabiltzea eguneroko bizimoduan aurrera egiteko.

Batez ere poesia eta haur eta gazteei zuzendutako liburuak idazteagatik ezagutzen zaitugu, baina duela pare bat urte helduentzako eleberri bat argitaratu zenuen lehenengo aldiz: *Kristalezko begi bat*. Erronka izan zen? Beharrazana?

Denetarik apur bat. Esperientzia mingarri bat prosaz adierazteko helburua jarri nion neure buruari. Alde horretatik, editore batek aspaldi botatako erronkarekin lotzen da, hark esan baitzidan neure buruaz idatzi arren beste ikuspuntu batek eta beste tonu batekin egiten saiatzeko. Askok hitz egin da liburuaz. Ondoren, gaztelaniazko bertsioa taxutu nuen, eta polito zabaldu da. Udazkenean katalanez kaleratuko da, eta italierazko eta ingelesezko itzulpenak ere martxan dira.

Helduentzako liburu gehiago egin-go duzu?

"Adierazpen-batasuna dago nire bizipenen eta testuen artean"

"Emozioak gogoeta bihurtzea dut helburu, eta gogoetok makulu modura erabiltzea eguneroko bizimoduan aurrera egiteko"



Nahiko nuke. Ea datorren udan zeri heltzen diodan. Gazteentzat nobela bat idazteko ideia darabilt, baina, egia esanda, ez dakit zer etorriko den.

Aurreko galdera batean aipatu duzu *Kristalezko begi bat* liburuak zeuk itzuli zenuela gaztelarara. Autoitzulpenaren aldekoa zara.

Nahiago dut neuk egin, eta orain arte neuk itzuli ditut gaztelaniara bai poema-

liburuak, bai haur eta gazteentzat idatzitakoak, gustatzeaz gain ariketa formal interresgarria iruditzen zaidalako. Gainera, testuaren jabea izanik, libre sentitzen naiz literaltasunetik pixka bat aldentzeko ere, komeni bada, bertsio berria egitera heldu gabe, noski. Bestalde, *Kristalezko begi bat* liburuaren kasuan bereziki, arrotza egingo zitzaidan hain istorio pertsonala inork emandako hitzetan berrirakurtzea.

UDAKO IKASTAROAK 2015



UDAN ERE EUSKAHALDUNDU ZAITEZ!

TXORIERRIKO AEK
TXEPETXA EUSKALTEGIAN
Uda ikastaroak
Uztailaren eta irailean
Apuntatzeko epea: ekainaren 29 arte
txepetxa@aek.org
94 454 39 67 / 607 598 794

aek
Gurea ikasteko
gaitasuna
dugu eta ikasteko
gaitasuna dugu



EUSKALTEGIAK
IKASTARO TRINKOAK, EUSKALDUNTZEA
AZTERKETAK PRESTATZEKO - ON LINE IKASTAROAK



2 ASTEKO BARNETEGIAK
EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BDTZEKO ALURERA - AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA BARNETEGIAK
EUSKARA IKASTEN
SANE-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK
ONIEZ ZEH4 BUKLETAK - INBIZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 - 946 464 000
www.aek.eus

"Rock & Rollak ez du adinik"

ADRIÁN SUSMOZAS RODRIGUEZ | La Vieja taldeko gitarra-jotzailea

Eszenatokian lau atso azaldu dira. Instrumentuak hartu eta rock and rolla egiten hasi dira. Arreta handiagoa ipini eta benetan lau atso ez direla konturatu dira ikusleak. Adrián, Eder, Aitor eta Xabier dira, La Vieja musika taldeko kideak, ileordea eta atsoen arropa jantzi dituztenak. Adriánek gitarra jotzen du taldean eta horren sortzaileetarikoa bat ere bada. Zamudioztarrak La Viejaren historia kontatu digu.

t/a: Itxaso Marina

Zelan sortu zen taldea?

Ederrek, baxu-jotzailea eta abeslaria denak, lehenagotik zuen taldean sartu nintzen. Hilabete batzuetan ibili ginen kontzertuak ematen, baina beste taldeki-deek beste proiektu batzuekin saiatzea erabaki zuten eta taldea desegin zen. Ederrek eta biok jarraitu genuen elkarrekin. Rock talde bat osatzea hartu genuen helburutzat, Platero-eta taldeen estilo-koa, eta orain dela bost urte inguru La Vieja sortu zen. Hasieran, beste talde batzuen bertsioak egiten genituen eta pixkanaka-

pixkanaka gure abestiak konposatzen hasi gara. Orain dela urte bi serioago hartu genuen taldea eta handik hona gogor gabiltza lanean, ea musika munduan gure lekua egiten dugun.

Zergatik La Vieja?

Taldeari La Vieja Escuela deitzea pentsatu genuen hasieran, "egiteko lehengo era hori" apur bat errebindikatzeko. Baina luzeegia zen eta La Vieja izenaren alde egin genuen azkenean. Izen horrekin adierazi nahi dugu musika entzuteko, rock and rolla entzuteko, ez dagoela adinik.

Zeintzuk dira La Viejak entzuten dituen taldeak?

Extremoduro, Platero, Marea...

Maketa bat duzue merkatuan.

Maketa, *La Vieja* izenekoak, zortzi abestik osatzen dute. Apur bat denetarik dago: oso *kañeroak* diren abestiak, erritmo geldiagoa du-

Ahal den arte

Adrianek 26 urte bete berri ditu. Bateria jotzen ikasi nahi zuen, baina amak esan zion etxean ez zela halako traman-kulu bat sartuko. DBHko laugarren ikasturtean zegoela, gurasoek gitarra erosi zioten. "Juanek, ile-apaintzaileak, irakatsi zidan gitarra jotzen. Gero, Eder ezagutu nuen eta bere taldean sartu nintzen. Nire kabuz ere ikasi dut, eta academia batera joan naiz". Taldekideekin gutxienez astean bitan entseatzen du, bateria-jolearen estudioan, eta gero, etxean, ahal duen guztietan. "Gure abestiez gainera, beste talde batzuenak ere jotzen ditugu, eta ondo egin behar da. Errepertorioa ere berritu behar da".

Rock and rollaren izar bihurtzea askoren ametsa da. Adrianek badaki hori oso zaila dela, "baina, aizue!, etorkizunean lortzen badugu, bada, primeran!". Asko disfrutatzen du musika jotzen eta gustura dago eszenatokian. Horregatik, ahal den arte ailegatu nahi du musika munduan. Izan ere, etorri beharrekoa etorriko da. La Viejak bizitza luzea du aurretik.





ten beste batzuk... *Mi salvaje* yo, esate baterako, Los Suaves taldeari omenaldi txiki bat da; *Carretera y manta*, AC DC taldeari; eta *Te he dibujado* abestia neska bati idatzi zion baxu-jotzaileak. Ondo pasatzeko abestiak dira orokorrean. Une bakoitzaz eta egiten dugun gauza bakoitzaz gozatu behar dugula adierazi nahi dugu; eta rock and rollaz, jakina!

Bideoklip bi be badituzue.

Bai, *Corazón de cuero* eta *Mi salvaje* yo abestienak. Lehena Madriletik eta Mantxatik biran geundela grabatu zigun lagun batek. *Mi salvaje* yo bideokliperako atso mozorroto ginen; eta beste lagun bat, Heriotza. Heriotza gure atzetik zebilen, gu harrapatzeko nahian, baina azkenean guk irabazi genion berari. Oso dibertigarria izan zen.

Taka-Taka's Tourrean zabiltzate murgilduta. Nora eraman eta eraman-go zaituzte "la viejonetak"?

"Bigarren lanaren abestiak prestatzen gabiltza; uste dugu oso dotore geldituko dela"

Kontzertuak batez ere Bizkaian eman ditugu, baina Madrilan, Ciudad Realen, Kantabrian, Zaragozan... ere izan gara. Maiatzean, Arnedon joko dugu (hilak 16), eta Bilboko Hika Ateneoan (hilak 22); ekainean, MungiRock aretoan (hilak 13), eta Rock Beer the New Santanderreko aretoan (hilak 19); eta uztailaren 4an, Tolosan, Langostino Motor jaialdian.

Hainbat taldek bezala, kontzertuak zeuek topatzen dituzue. Esfortzu handia, ezta?

Esfortzua eta dirua. Alde batetik, jotzeko aretoak han eta hemen topatu behar dira, haiekin harremanetan ipini, abesti batzuk bidali entzun ditzatzen... Eta bestetik, hara joan behar da. Normalean musu-truk jotzen dugu, edo batzuetan edariekin ateratzen denaren portzentaje txiki bat ematen dizute... eta gasolina ordaindu behar da. Baina, tira, azkenean bazoaz, jotzea gustatzen zaizulako. Gu sarrera kobratzen hasi gara, bizpahiru euro.

Nolako harrera dauka La Viejak?

Ona. Badago taldetxo bat kontzertuetara beti datorrena. Lagunak dira, familia... Bestalde, kontzertuen ostean maketak saldu ohi ditugu.

Urte bukaeran estudioara sartzeko asmoa duzue, zuen bigarren lana grabatzeko.

Abesti berriak egiten gabiltza, eta uste dugu oso dotore geldituko dela. Oso abesti *kañeroak* egongo dira, beste batzuk erritmikoagoak izango dira, erritmo motelagoa duen abestiren bat...



Unrtzagi Ibaia Kalea, 1
48160 - DEIRO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produzioaren Programazio teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrolleko goi-mailako teknikaria,
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arioetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

Egitasmoa osasun zentroetatik koordinatu egin da, eta familia-medikuek gaixotasun kardiobaskularrei lotutako arrisku-faktore bat baino gehiago duten gaixoak animatu dituzte han parte hartzera. Besteak beste, hipertentsioa, kolesterola, odoleko gehiegizko glukosa eta obesitatea izan dira arrisku-faktore horien artean.

Haien osasuna hobetzeko, gaixoei kirola egitea errezetatu diete medikuek eta Mugik-on enpresak gaixo bakoitzarentzat jarduera-plan indibidualizatu bat egiteko ardura eduki du. Álex González osasunerako jarduera fisikoko monitorea da eta Mugik-on enpresan egiten du lan. Azaldu digun bezala, medikuaren txostena abiapuntutzat hartuta, gaixo bakoitzak inkesta bat bete du, jarduera fisikorik eta hura zein maiztasunarekin egiten duen jakiteko, eta proba fisiko batzuk ere egin ditu, bere egoera fisikoa ezagutzeko. "Emaitzak kontuan hartuta, osasun arloko helburu zehatzak zehaztu dira parte-hartzaile bakoitzarentzat eta, helburuok betetzeko, kirol plangintza pertsonalizatu

Kirol errezeta

Urtarrilean, Mugiment Txorierri programa ipini genuen martxan Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzarekin batera. Programak gaixotasun kronikoa duten pertsonen jarduera fisikoa egitea zuen helburu, beren osasuna hobe zezaten, eta bertan 60 lagun inguruk hartu dute parte.

bat diseinatu egin da. Izan ere, hipertentsioa eta kolesterol altua dituzten 50 urteko lagun bat eta 75 urteko beste lagun bat ez daude egoera berdinean, edo kirolik inoiz egin ez duena eta etxean bizikleta estatikoa erabiltzen duena...".

Txorierriko herri guztietan ordu eta erdiko eskola eman da asterik behin, eta nahi izan duenak aukera eduki du beste herrietako eskoletan ere parte hartzeko. Monitoreak ariketa erraza batzuk irakatsi dizkie gaixoei, eskolan ez ezik etxean ere

egin ditzaten. "Aulkiak, makilak... erabiltzen ditugu ariketak egiteko. Izan ere, horiek erraz topa daitezke edozein etxetan eta horrela ez dute materialik erosi behar. Kirola astean behin egitea ez da nahikoa. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, kirola astean bost egunetan egin behar da, eta gutxienez 30-45 minutu. Helburua da eskolan ikasitako ariketak etxean ere egin ditzatela, kiroldegira joatera anima daitezela, edo kirol ikastaroetan izena eman dezatela".

Gorputz osoa mugitu

Maria Luisa Paulo zamudioztarrak 77 urte ditu. Medikuaren aholkuari kasu egin eta Mugiment Txorierri programan parte hartzera animatu zen. "Hezurretako arazoak nituen eta, egia esan, askoz hobeto nago orain". Emakume sedentarioa ez da, ibiltzera egunero ateratzen delako, "asko ibiltzen gara", baina aitortu digu ez duela beste jarduera fisikorik egiten. "Eskolan Alexek agintzen dizkidan ariketa guztiak egiten ditut: besoak mugitzen ditut, hankak, burua, eskuak... gorputz osoa!".

Ariketak eskolatik kanpo ere egiten dituen galdetu diogu. "Beharko nuke, baina ia-ia ez dut astirik: etxea, bazkaria, hau, bestea... Dena dela, momenturen bat badut, bada, orduan egiten ditut". Oso balorazio positiboa egin du programari buruz eta lehen baino askoz hobeto sentitzen dela azpimarratu du behin eta berriro. "Pena da orain amaitzea. Jarraituko balu, ni astero etorriko nintzateke. Astero, eta egunero ere bai".





Jarraipena

Mugiment Txorierri programan 60 urtetik 85 urtera bitarteko lagunek hartu dute parte eta gehienak emakumezkoak izan dira. Nolanahi ere, 40 urteko lagun bat ere ibili da bertan. "Programan parte hartzeko baldintza bat gaixotasunardiobaskularreko arriskua edukitzea izan da, baina parte-hartzaile gehienak edadekoak izan direla kontuan hartuta, beste osasun-arazo batzuk ere eduki dituzte, hala nola artritis, artikulazio-arazoak eta hezur eta gihar-arazoak. Arazo horiek

Helburua da eskolan ikasitako ariketak etxean ere egin ditzatela, edo kiroldegira joatera anima daitezela

arintzeko ariketak ere irakatsi dizkiegu". Ariketak modu egokian egiten dituztela ikustatzeaz gainera, astean zehar egiten duten jarduera fisikoaren jarraipena ere egin du monitoreak. Programa amaitzeaz dago eta inkesta bat emango diote parte-hartzaile bakoitzari, eta idatziz jasoko dute jarduera fisikoa areagotu duten ala ez.

Familia-medikuak aztertu beharko ditu, programan aritu ostean, gaixoen analisiak hobetu diren, baina Alexek argi dauka parte-hartzaile guztiek beren egoera fisikoa eta bizi kalitatea hobetu dituztela. "Batzuek, adibidez, arazoak zituzten besoak altxatzeko eta orain arazo barik egiteko gauza dira. Bestalde, oraindik gidatzen duen 81 urteko gizon bat dago parte-hartzaileen artean. Lehen, emaztea joaten zen beti berarekin autoan, ezin zuelako lepoa atzera biratu. Orain ostera, ez dauka inoren beharrik. Bera bakarrik autoan joateko gai da".

Kirola egitea osasunerako oso onuragarria dela guztiok dakigun gauza da.

Programan parte hartu duten guztiek beren egoera fisikoa eta bizi kalitatea hobetu dituzte

"Asmo onak izan arren, kirola egitera animatu edo bultzatzen duten figura horren beharra dute batzuek, eta Mugiment programaren beste helburu bat da ikustea, kirolari dagokionez, zelan kudea daitekeen osasun zentroaren eta gaixoaren arteko lotura. Izan ere, gaixotasunari aurrea hartzeko joera dago gaur egun, ebakuntzak edo botikak ekiditeko". Horrela, bada, Mugiment programaren parte-hartzaileek bizimodu osasungarri baterako ohitura-plan bat osatuko dute beren medikuekin batera, ikasitakoari jarraipena emateko.

Zatoz Txorierri Games-era!

Lehiaketa izugarri honetan parte hartzeko baldintza bakarra da 13 urtetik 30 urtera bitarteko lauzpabost lagunek taldea izatea da. Probak ekaineko zapatuetan



egingo dira. Ekainaren 6an, 16:30ean, kirol proba bat gainditu beharko da Derioko eskolan; eta ekainaren 13an, 16:30ean, trebetasun proba Zamudioko eskola zaharrean. Ekainaren 20an, eta San Joan jaien haritik, Sondikan ipiniko duten karpan, adimen proba egin beharko da. Hori ere 16:30ean izango da. Eta azkenik, ekainaren 27an, 11:30ean, pintxo lehiaketa izango da Loiu, Udaletxeko plazan, hain zuzen ere. Bestalde, sari bi banatuko dira: lehen saria 70 eurokoa izango da; eta bigarrena, 30 eurokoa.



TXORIERRITAR BI, "EMAN GILTZA" EGITASMOAREN IRABAZLEAK.– "Eman giltza" webguneko inkesta betetzearren lau sari zozketatu dira Bizkaia mailan. Aurten sari horietatik bi Txorierri tokatu zaizkio. Gurutze Bilbao eta Irune Quintal derioztarrak izan dira irabazleak eta 100 euroko balioa duen euskarazko jolas sorta bana irabazi dute. Zorionak bioi!

“Beharra baino pasioa da txirrindularitza”

XABIER ARTETXE | prestatzaile fisikoa

Larrabetzuarra beheko mailetan hasi zan txirrindularitzan, eta urratsez urrats gailurrera heldu da. Orain dala hiru urte, munduko talderik onenetariko batek, Movistarrek, fitxau eban, eta aurton puntapuntako beste talde batera joan da, Sky talde britainarrera. Xabier zeruan dago.



t/a: Gaizka Eguzkitza

Larrabetzuar peto-petoa zara...

Bai, amama Gaztelumendikoa zan eta ni be han jaio eta bizi izan nintzan. Gero neskeagaz urira joan nintzan bizitzera, eta gaur egun Gaztelumendin bizi naz barriro, anaiakaz batera egindako etxe baten. Badakizu, ahuntzak beti larrera (kar, kar). Bizitzea herrian egiten dot, baina, egia esateko, hainbeste egun etxetik kanpo emoten dodanez, etxean nagoanean nasaitasuna gura dot eta etxean egon gurago dot. Larrabetzu herri nasaia eta txikia da, badakit, baina, koadrilakoek esaten deusten moduan, gero eta eremutarragoa naz.

Egun pilo bat emoten dozu etxetik kanpo... Gogorra egiten jatzu?

Bai, batez be familiarentzat. Alaba bi dodaz eta gatxa egiten jat emaztea eura-kaz bakarrik itxi behar izatea. Bitxia da, lasterketetan familia izaten dot gogoan, eta etxera itzultzeko irrikan egoten naz; eta etxean nagoanean, aldiz, hurrengo lasterketea noz etorriko zain egoten naz. Gurpil zoroa da (kar, kar).

Zelan hasi zinan txirrindularitzan?

Aitak eta osaba batek oso zaletasun handia euki eben txirrindularitzarako, eta eurakaz joaten ginan lasterketetara. Ge-roago, anaia, Mikel, txirrindulari egin zan eta gero ni be bai.

Anaia profesionala izan zan, baina zu ez, ordea. Gustauko jatzun?

Bakotxak jakin behar dau zein dan bere maila, eta nirea, argi dagoanez, ez

Ibilbidea

Jaiotze lekua eta urtea:

–Larrabetzu, 1978a.

Ikasketak:

–Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziaduna. Beharrean egoala, 2005etik 2010era bitartean, doktoretza eta masterra egin zituan.

Taldeak:

–Olarra (2001-2004)
–Seguros Bilbao (2005-2010)
–Caja Rural (2011)
–Movistar Team (2012-2013)
–Team Sky (2014-...)

zan nahikoa profesionala izateko. Guztira, zortzi urte emon nebazan txirrindulari, eta 20 urte nebazala itxi neban. Ez neban etorkizun handirik ikusten eta garai hatan Gasteizen nenbilen ikasten, eta horri emon neutsan lehentasuna.

Danetarik egin dozu txirrindularitzan, ezta? Txirrindularia, zuzendaria, prestatzailea... Arlo guztiak ezagutzen dozuz.

Bai, eta masajista eta mekanikari be ibilia naz. Punta-puntako taldeetan zagozanean, askoz gehiago baloraten dozu zelan lortu dozun goi-mailara ailegatzen. Gainera, besteen lana ezagutzen dozu eta hori errespetaten ikasten dozu. Eta nabaritu egiten da nor heldu dan zuzene-

“Lasterketetan familia izaten dot gogoan; eta etxean nagoanean, aldiz, hurrengo lasterketea noz etorriko zain egoten naz”

an eta nor ibili behar izan dauan pausoz pauso behetik goiko aldera heltzeko.

Orain dala hiru urte, Movistar taldera, munduko talderik onenetariko batera, heldu zinan. Zelakoa izan zan aldaketea, zaletu mailatik goi-mailara?

Ni zaletu mailako taldeetan ibilia nintzan eta 2012an talde barik gelditu nintzan. Halanda be, prestatzaile fisiko ibili nintzan neure kabuz txirrindulari batzuek, eta 2013an Movistar taldera iritsi nintzan. Ez pentsa zaletu mailaren eta goi-mailaren arteko aldaketea oso handia izan zanik, nik gauza bera egiten nebalako. Baina egia da, Movistar bezalako talde bat talde zaletu bat baino askoz handiagoa da: egitura eta presino handiagoa, txirrindulari hobeak...

Movistar taldean urte bi emon zenuzun. Zelangoa izan zan esperientzia?

Oso ona. Ni pozik ibili nintzan, baita txirrindulariak eta taldeko agintariak be. Emaizte jagokenez, primeran: urte bietan, UCI ProTour sailkapenean talderik

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oitz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TXORIERRI MARMOLDEGIA



Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoliti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

ERREHABILITAZIOA ETA OSATZEA

TRUIUONDO ZAMUDIO ZENTRO GERIATRIKOA

- Ebakuntza ondoko zaintza
- Lesio traumatologikoak
- Aholkularitza prebentiboa
- Eboluzioaren jarraipena
- Programa terapeutiko osagarriak



94 657 55 00
www.naguspea.es

ASADOR FUENTENE berria
“lur eta itsasoko baserria”



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarratan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIJA)
94 452 23 79
www.aladefuenteneberria.com

*“Movistar taldean
goi-mailan jarduteko
gauza nintzala
erakutsi neutsan
neure buruari”*

onena izan ginan eta nigaz behar egiten eben txirrindulariek hainbat lasterketa irabazi zituen. Eta arlo pertsonalean be, pozik: goi-mailako talde batean jarduteko gauza nintzala erakutsi neutsan neure buruari.

Eta zergaitik aldatu? Zergaitik Sky taldea?

Ez naz taldez aldatu, Sky edo haren txirrindularien maila Movistar taldearena baino hobea dalako. Eskaintza interesgarria iruditu jatan, txirrindularitza Sky taldea kirol zientzian gehien inbertitzen dauana dalako. Oso talde barritzailea eta ekintzailea da. Gainera beste kultura bat, beste hizkuntza bat eta beste behar egiteko era bat ezagutzeko aukerea emoten deust Sky taldeak.

Hasikera baten, zuzendari aritu zinan, baina orain prestatzaile fisikoa zara. Hori ez da atzerapausoa? Zer gurago dozu?

Nik prestatzaile fisikoa izan gurago dot, besteak beste, txirrindulariak hartu-emon hurbilagoa eta zintzoagoa dozulako. Batzuetan, Movistar zein Sky taldeetan laguntasuna emon deustet zuzendariei, baina prestatzaile fisikoa naz batez be. Normalean, prestatzaile fisikok zuzendariak baino maila txikiagoa dau, baina horrek niri ez deust ardura. Dana dala, Sky taldean ez da hori gertatzen; prestatzaileok poderetsuak gara, askotan zuzendariak baino poderetsuagoak. Prestatzailea urteko egun guztietan dago txirrindulariak hartu-emonetan, eta beharra ondo egiten ez badau, zuzendariak be ezin izango dau bere beharra ondo egin. Beraz, zein da garrantzitsuena? Prestatzailearen beharra. Eta filosofia hori Sky taldean baino ez dago, bitxia emon arren.

Gero eta garrantzi handiagoa dabe prestatzaileek, ezta? Emoten dau kirola zientzia bilakatzen ari dala...

Bai, eta horregaitik dabe zientzia-gizonek edo teknikariek gero eta eragin

*“Zientzia-gizonek
edo teknikariek
gero eta eragin
handiagoa dabe
txirrindularitza”*

handiagoa txirrindularitza. Lehen, txirrindularitza erromantikoagoa zan, baina denporearen poderioz, beste kirol guztietan gertatu dan moduan, gero eta kontrol handiagoa dago. Txirrindularien arteko aldeak oso txikiak dira, eta dana neurtu eta kontrolau behar da, irabazi ahal izateko: bizikletearen pisua, eguraldia, gurpilak, txirrindularien indarbarritza, elikadura, hurrengo etaparen profila, aurreko egunean txirrindulari bako txak emon dauan errendimendua...

Hainbeste kontrol egoteak ez deustso kirolari erromantizismorik kentzen?

Bai, baina kontrolak gauza onak be ekarri ditu. Esate baterako, txirrindularien segurtasuna handitu dau, eta gainera, kontrolari esker, txirrindularien arteko aldeak murriztu dira eta, ondorioz, ikusgarriagoak dira lasterketak. Bizitza aurrera doa, eta kirola be bai. Ezin deustseguz aurrerapen teknikoei bizkar emon.

*“Gaur egun oso kirol
garbia dogu, oso
kontrolauta dago,
txirrindulariek eurek
halan eskatu dabelako”*

Irakurrita daukat metodikoa, serioa eta zehatza zarala beharrean... Horrelakoa da?

Beharrean langilea eta serioa izan behar zara, bestela... Zoriontsua naz, neure beharra izugarri gustetan jatalako. Onerako edo txarrerako, nik ez dot ordutegirik, bardin deust zenbat ordu egon behar dodan. Goi-mailako kirolean holan ibili behar da, ez dago jaiegunen eta aste-gunen arteko desbardintasunik. Eta buruan beti martxan egon behar da. Ni pozik nabil holan, txirrindularitza beharra baino gehiago pasinoa dalako. Zehatza edo serioa nazala? Ez dakit, ni ahalik eta ondoen egiten saiatzen naz.

Argi dago txirrindularitza maite dozula. Zelango eragina euki dau dopinak kirol horretan?

Dopinak krisi bortitza eragin eban txirrindularitza, baina egurra jaso arren, zaletu kopuruari eutsi deustso. Gaur egun, zorionez, oso kirol garbia dogu, oso kon-



trolauta dago. Eta horrelakoa da txirrindulariek eurek halan eskatu dabelako. Izan be, eurek onartu eben Adams pasaporte biologikoa, hau da, esan behar dabe egunero-egunero non dagozan eta zer egiten daben. Tenislariak, aldiz, ez eben onartu. Txirrindulariek duintasuna galdu dabe, argi eta garbi jokatu gura dabelako. Horrek ez dau esan gura dopinik egon ez danik. Dopina egon da, beharbada badago eta beharbada egongo da, txirrindulariak erabat kontrolatzea ezinezkoa dalako. Baina mentalitatea aldatu egin da, eta gaur egun, taldeok borrokatzen dogu dopinaren kontra. Sky taldeak, esate baterako, dopinaren inguruan ibili ziran guztiak kaleratu zituan. Oso zorrotzak dira eta argi daukie gauzak zelan egin gura dituen. Halanda be, esaten da kirol zikina dala, baina ez nago ados: kontuan izanda txirrindulariei zenbat azterketa egiten jaken eta zenbat gainditzen daben, txirrindulariak ez dira positibo gehien emoten daben kirolariak. Dana dala, gaur egun txirrindularitzaek beste arazo batzuk ditu...

Zeintzuk?

Batez be ekonomikoak, eta UCI Pro-tour zirkuitutik kanpo. Goi-mailan ez dago krisirik, baina beheko mailan gorrak ikusten ditue. Talde gitxi dagoz, eta gazteek ez dabe aukerarik profesional mailan aritzeko. Talde txikiak doguz faltan.



Talde barritzailea

Xabierrek zortzi txirrindulariren pres-takuntza zuzentzen dau Sky taldean, eta horrezaz aparte, batzuetan lasterketetara joaten da zuzendariari laguntzera. Besteak beste, Italiako Giroa, Esloveniako Tourra, Donostiako Klasikoa eta Espainiako Itzulia dagoz bere egutegian. Talde britainiarra munduko onenetariko bat da. Askotan, Apple informatika enpresagaz alderatzen da, benetan barritzailea dalako. "Erreferentziako taldea da Sky, eta guztiak sartu gura dabe taldean. Hemen pare bat urte emoten badozu beharrean, edozein tokitara joateko aukerea eukiko dozu. Antolakuntza ederra dago taldean, dana neurtzen dabe, eta oso talde handia

eta profesionala da. Harritzeko modukoa da, benetan".

Xabierrek Tim Kerrison txirrindularitza modernoaren guru barriagaz egingo dau behar Sky taldean. "Tim australiarra da, isila, jatorra eta oso langilea. Dana neurtzen dau zenbakietan. Nire ustez, ikuspuntu hotz batetik aztertzen dau txirrindularitza; ikuspuntu erromantikoa botaten dot faltan, bera zientzia-gizona dalako. Baina asko daki eta oso persona argia da".

Baina Kerrison ez eze, Chris Froome eta Bradley Wiggins munduko txirrindularirik onenetarikoak be larrabetzuarren taldekideak dira. "Erabat ezbar-di-

nak dira. Esaten da Bradley harroputza dala, baina ni ez nago ados. Nire ustez, presino handia jasan behar dau, Erre-suma Batuan oihartzun handia daua-lako. Gizon nasaia, langilea eta lotsatia dala uste dot. Izugarritzko txirrindula-ria da eta hainbat lasterketa irabazi ditu. Profesional hutsa da, txirrindula-ririk profesionalenatariko bat, zalantza barik. Bestalde, Chris oso gizon zin-tzoa, esker onekoa, isila eta umila da. Nortasuna adierazo behar dauanean, adierazo egiten dau, baina era berean, badaki taldekideen beharra esker-tzen. Oso erraza da beragaz behar egi-tea. Nasaia eta langileak dira biak. Euren artean hika-mikak egon dira, baina oro har oso giro ona dago talde-an".

Argi-zuziak kalejiran

Gazteentzako eguna egongo da eta, San Joan gauean, kalejira berezia egingo da liburutegitik izen bereko landaraino. Argi-zuziak protagonista izango dira ekintza horretan



a: Juanjo Ortiz Llamosas

Sondikan dana daukie prest San Joan jaiez disfrutatuko. Udaletik kontau deuskuen moduan, ekainaren 19tik 24ra bitartean, sondikohtar guztiei zuzendutako ekitaldi sorta zabala egongo da herrian; esaterako, txapelketak, kirola, jolasak, dantzak eta musikea. "Sondikohtar guztiontzako ekitaldiak dira. Sondikohtar guztiontzat, eta bertoraino hurbiltzen dan edonorentzat, munda guztiari egiten deusagulako jaietan parte hartzeko konbitea: herritarrei, jakina, baina beste herrietako lagunei be bai".

Pregoia barikuan botako dabe, 20:30ean, eta zapiak be banatuko ditue. Egun horretarako, umeentzako jolasak eta tortilla txapelketea antolatu dira. Tortilla txapelketea parte-hartze handia dauan ekintza da. Musikea Hira eta La Fuga taldeek ipiniko dabe.

Zapatuan, Frontenis txapelketea egingo da lehenengo aldiz eta, esan deuskuenaren arabera, bertan 24-36 bikotek parte hartzea espero dabe. Balkoi eta leiho apainduen lehiaketako sariak be

banatuko dira zapatuan. Lehiaketek mar txan ipini da jadanik, eta 120 lagunek emon dabe izena. Epailerek zapatuan jakinarazoko dabe euren eretxia. Horrezaz gainera, kalejirea, apar-jaia, herri bazkaria, dantzen agerraldia eta suak egongo dira. Eszenatokira Urtz taldea igongo da.

Domeka goizean, kalejirea, tiragoma txapelketea, eta auto eta motor erakusketak izango dira. Sukalki txapelketea be, gero eta arrakasta handiagoa daukana, domekan egingo da. Horrezaz gainera, Sondikan Berton merkatarien alkarteak ekintza berezi bat antolatu dau: puxikak askatuko ditue eta hareen barruan sustapenak eta sari bereziak dituen txartelak egongo dira. Arratsaldean, mus txapelketea, dantzen agerraldia eta diskofestea egongo dira.

Barratxu argidunak, gaztetxoentzat

Astelehena gazteen eguna izango da. "Herriko gazteakaz ipini ginan harremetan, eta galdetu geuntsen jaietan zer egin gura eben. Guztion artean hareei zuzendutako programa bat adostu dogu eta elektrotxarangea, jolasak, bazkaria

Hira, La Fuga eta Urtz taldeek emongo dabe kontzertua; herriko musika taldeek be igongo dabe eszenatokira

eta skate txapelketea antolatu doguz. Herriko musika taldeek be kontzertua eskiniko dabe. Espero dogu egun horretan oso giro polita egotea".

Martizenean, San Joan gaua ospatuko da eta, beraz, oso egun berezia izango da Sondikan. "Igaz kalejira bat egin genduan Udaletxetik San Joan landaraino eta parte-hartzaileek argi-zuzi bana eroan eben. Guztira, 900 argi-zuzi banatu genduzan eta oso ikusgarria izan zan. Baita arrakastatsua be. Nobedade bi egongo dira aurren: alde batetik, ibilpidea liburutegian hasiko dogu; eta bestetik, ume eta gaztetxoei barratxu argidunak emongo deutseguz, hareentzat seguruagoak diralak". San Joan landan sua biztuko dabe. Gaua Oihan Vega dj-ak girotuko dau.

Mobimendu handiko bost egunen ostean, eguaztenean amierea emongo deutsee jaiet. Besteak beste, umeentzako jolas parkea, jubiladuentzako kopaua eta kalejirak egongo dira. Azken trakea iluntzeko 8,30etan botako dabe. "Bestalde, jai-guneari jagokonez, hori betiko moduan antolatuko da. Karpa handi bat ipiniko da San Joan landan, eta halan ziurtatuko dogu, eguraldi txarra eginez gero, ekintza gehienak lasai egin ahal izango doguzala. Ekintza gehienak landan izango dira, baina beste batzuk herriko beste leku batzuetara eroango dira; esate baterako, umeentzako puzgarriak".



GIRORIK ONENA SONDIKAKO JAIETAN

SONDIKAKO



UDALA

ETORRI ETA
PARTE HARTU



Gautxori
Errementeeri kalea, 18
48150 SONDIKA

Iturrikosolo 4 - lonja
48150 Sondika (Bizkaia)
T: 94 453 52 08



SONDIKA
Albaitaritza-klinika

Hainbat Patologia
(medikoa, kirurgikoa...)

- Radiologia
- Ecografia
- Analisiak
- Inspaindegia
- Elikadura
- Etxeko asistentzia-

24 orduko larrialdiak
DR. DAVID GARCIA
607 85 60 39



Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

DIETETIKA
NATUROPATIA
PRODUKTU EKOLOGIKOAK
KOSMETIKA
ESTETIKA

Sabino Arana 3 Lonja
48150 Sondika - Bizkaia
94 655 80 00 - 689 99 88 43
izpilen@gmail.com

Martinez Zaldueño Doktorea
Mediku estomatologoa
EHUko Odontologia irakaslea
Panky EEUU Profesorea



**Clínica Sondika
Dental**
"1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irritarrea"

Protesiak inplanteen gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadencli



ALTZORA
Sondikako euskara elkarte

**ONDOPASA
JAIETAN!**



auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefona 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza Iturriondo, 2 (goia)
Telefona: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

Ekainak 19, barikua

- 15:30-17:00: Umeentzako jolas parkea, Gorondagane guraso alkarteak antolatua.
- 17:00-19:00: Diskofesta, Dj Urtzagaz. Gorondagane guraso alkarteak antolatua.
- 20:00: Tortilla txapelketan izena emotea.
- 20:30: Txupinazioa eta jaietako zapiak banatzea.
- 21:00: Tortillak aurkeztea.
- 21:30: Tortilla txapelketako sariak emotea.
- 22:30: Kontzertua: Hira taldea.
- 24:00: Kontzertua: La Fuga taldea.
- 02:00: Dj animatzailea.

Ekainak 20, zapatua

- 09:00-18:30: Aire zabaleko pintura lehiaketak.
- 09:00-18:30: "Joan Deuna" I. Frontenis Txapelketea, Hegalariak taldeak antolatua.
- 11:00: Kalejirea, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
- 13:00: Apar-jaia.
- 13:30: Idiazabal gaztaia dastatzea, txosnetan.
- 14:30: Herri bazkaria, kultura eta kirol alkarteakaz.
- 16:30: Zumba eta karate erakustaldiak.
- 17:00: Inter-Gazte Trivial finalaurrekoa, Mankomunidadeak antolatua.
- 18:00: Aire zabaleko pintura lehiaketako sariak banatzea, Udalbatzar aretoan.
- 18:30: Balkoi eta leiho apainduen lehiaketako sariak banatzea, Udalbatzar aretoan.



- 19:30: Dantza agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.
- 23:00: Suak.
- 24:00: Kontzertua: Urtz taldea.
- 02:00: Dj animatzailea.

Ekainak 21, domeka

- 11:00: Kalejirea, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
- 11:00: Tiragoma txapelketea.
- 12:00: Auto eta motor erakusketea, Sondika Motor alkarteak eta Hegalariak taldeak antolatua.
- 12:00: Sukalki txapelketan izena emotea.
- 13:00: Sondikan Berton alkartearen ekintzea.
- 14:30: Sukalki txapelketako kazuelak aurkeztea.

Jai-egitaraua

- 15:00: Sukalki txapelketako sariak banatzea.
- 16:30: Mus txapelketea.
- 18:00: Dantza agerraldia, Gorantzaileak dantza taldeak antolatua.
- 19:30: Diskofesta, Dj Xaiborregaz.

Ekainak 22, astelehena

- 12:30: Elektrotxarangea, herritik.
- 13:00: Gazteentzako jolasak eta bazkaria, landan.
- 18:00: Skate txapelketea.
- 21:00: Herriko musika taldeen kontzertua.

Ekainak 23, martitzena

- 11:30-14:00: Umeentzako jolas parkea, Ikurrinaren enparantzan.
- 16:30-19:00: Umeentzako jolas parkea, Ikurrinaren enparantzan.
- 19:30: Pentagrama akordeoi taldearen emonaldia.
- 21:30: Argi-zuziak banatzea, liburutegian.
- 22:00: Kalejirea eta San Joan sua.
- 24:00: Dj Oihan Vega eta txokolatadea, txosnetan.

Ekainak 24, eguaztena

- 11:30-14:00: Umeentzako jolas parkea, San Joan zelaian.
- 11:30-14:30: Kalejirea, fanfarreagaz.
- 12:00: Mezea eta aurrekua.
- 13:00: Kalejirea, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
- 13:30: Jubiladuentzako kopaua.
- 16:30-19:00: Umeentzako jolas parkea, San Joan zelaian.
- 19:00: Gorritiren animaliak.
- 20:30: Azken trakea.



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

Asargandik gerta

AMOLKULABITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERBILTZEAK
SEGUROR BILBARRHEN AGENZIA

Comis. Deleg.
Txorierri
NRE 475

IMQ
AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Miztine 6, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txoriso 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Elegabeko ordulegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak.

Mikel Zarate, 2 - Tel / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
teilak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. leña
Sondika, 48150
94 453 89 19

SONDIKAKO BATZOKIA

Eguneko menuak
Enkarguzko menuak
Eguneko menuak, enpresentzat

Goiri Erdikoa, 1
48150 Sondika
T: 944710624

consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Miztine, 6 behea
48150 Sondika-Bizkaia

Reformas Rivero

Espezialitateak: igeltserotza eta pintura

Konpromisorik gabeko aurrekontuak
Azkarak, garbiak eta merkeak

luis_alberto_rivera_1984@live.com

t: 603 109 852



t: Itxaso Marina / a: N.A.

Ikasteko etxea

Abuztuan bederatzirte beteko dira Belüba Lüba Fürendei egitasmoa Livingston Guatemalako herrian martxan jarri zaneetik. Belüba Lüba Fürendei-k "ikasteko etxea" adierazo gura dau. Liburutegi-ludoteka bat da eta astean zehar zerbitzua emoten deutse 4 urtetik 20 urtera bitarteko 2.000 ume eta gazte ingururi. Asteburuetan, nagusiak eta unibersidadean dagozanak be hurbiltzen dira haraino, hiztegiak, entziklopediak, internet... dituan leku bakarra dalako. Liburutegi-ludotekak Cementerio auzoan dauka egoitza nagusia; beste egoitza bat, La Guaira auzoan; eta beste bat, La Pista auzoan. La Guairan, ingelesa irakasten da; eta La Pistan, heziketa fisikoa.

Nuria Amorrortu Juez Erandiogoikokoa da eta boluntario dabil Belüba Lüba Fürendei proiektuan. "Leku librea da eta, arau zibiko batzuk errespetatuz, gaztetxoek ikasi zein jolasteko aukerea daukie bertan. Gehienak etxeko lanak egitera datoz eta boluntariook ahalegina egiten dogu eskola-laguntzea emoten. Izan be, hango hezkuntzea nahiko eskasa da". Liburutegi-ludotekoa urtariletik azarora arte dago zabalik, ikasturtea bezala. Eskola hiru orduz goizean eta beste hiru orduz arratsaldean emoten da, eta umeak ordutegi horren arabera azaltzen dira liburutegi-ludotekan. Banaka batzuk ohiko erabiltzaileak diran arren, normalean da han arpegi barriak egunero ikustea. Nuriak azaldu deuskun moduan, Livingston herriaren beraren ezaugarriek baldintzatzen ditue hango hezkuntzea eta herritarren mugikortasuna. "Livingston badia bat da, eta hara ailegetako eta handik

Gurari Erandiogoikoko alkarreak jai solidario bat antolatu eban maiatzean. Ekintzari esker batu zan dirua Guatemalara, Belüba Lüba Fürendei proiektura hain zuzen be, bideratuko dabe. Proiektu hori umeei eta gazteei dago zuzenduta eta horreek jasoten daben hezkuntzea hobetzea dauka helburu.

aterateko modu bakarra txalupaz da. Eguraldi txarra badago edo argindarra joaten bada, ez dago ez hara heltzerik, ez handik ateraterik. Beraz, irakasleak beste herri batera, adibidez, erosketak egitera joan behar badau, badoa, nahiz eta eskolako ordutegian izan. Eta umeek egun horretan ez daukie eskolarik".

Auzo batzuen kokapenak be badauka bere eragina. "La Guaira auzora heltzeko, esate baterako, hondartzatik joan behar da eta ordu bi eta erdiko ibiltaldiaren ostean, oihanera barruratu. Eskuan matxeteara daroazula, bidea ez dagolako beti bardin. Eta noski, kasu honetan be eguraldiak baldintzatzen dau hara ailegau ahal izatea, edo handik urten





ahal izatea. Nik neuk be gauren bat emon behar izan dot bertan...". Bestalde, Livingston herrian lau kultura desbardinak batzen dira: quechiak, maiak diranak; garifunak, Afrikako esklaboen ondorengok diranak; latinoak; eta sincak, maiak diranak be bai. "Guztiek gazteleraz dakien arren, bakotxak badauka bere hizkuntzea eta horrek be nolabaiteko eragina dauka eskolan".

Boluntarioen bila

Ikasturtea hiru ardatz tematikotan dago banatuta Belüba Lüba Füreñdei liburutegi-ludotekan: identitatea, ingurumena eta birziklatzea. Hiru ardatz horreetan oinarrituta, hainbat ekintza antolatzen dira astean zehar, halan nola ipuin kontalariak, eskulanak eta joko interaktiboak. "Egoitzan bertan dagozan boluntarioez aparte, besteok, Guatemalatik hainbat eta hainbat kilometrora gagozanok be, gaztetxoek egindako beharra ikustzen dogu. Interneten bidez". Halan bada, liburuteka-ludotekearen lan-erritmoa bertan dagozan boluntario-kopuruaren arabera da. "Guztiok gara boluntarioak. Batzuk bertakoak dira, baina gehienok beste herrialde batzuetan bizi gara: Italian, Txilen, Ekuadorren, Espainiako estatuan... Eta hara ahal dogunean joaten gara, gehienbat oporrak daukaguzan. Era berean, bertakoek be lan egin behar dabe eta badaukiez euren gauzak. Horregaitik oso korapilatsua da liburutegi-ludotekak egunero eta urteko egun guztietan ehuneko ehunetan funtziona-

Liburutegi-ludotekak 2.000 ume eta gazte ingururi emoten deutse zerbitzua astean zehar

tzea. Gure arteko bilerak be Skype-ren bidez egiten doguz".

Hori dala-eta boluntarioen bila dabil. "Guk ez dogu baldintza berezirik edo titulurik eskatzen; behar egiteko gogoia eukitea baino ez. Dana dala, ahalegina egiten gabilz bertako lagunak erakarten. Azken baten, komunitate-proiektu bat da, hau da, komunitatearen onurarako, eta interesgarria da bertakoak han inplikatzeko, kanpoko boluntarioen beharrik ez izateko".

Belüba Lüba Füreñdei liburutegi-ludoteka proiektu autofinantziatua eta autogestionatua da, eta ez dau inongo erakunde publikotatik dirurik jasoten. "Alka-

te barria aukeratu eban orain dala urte bi. Haren umeak liburutegi-ludotekara datoz eta proiektua gustaten jakonez, bere boltsikotik ordaintzen ditu zabor-bilketea eta ur-bidoiak. Baina Erandiogoikoan antolatutako jaialdia bezalako ekimenen bidez lortzen danaz aparte, ez daukagu beste laguntzarik. Frustragarria da batzuetan, zenbakiak ateraten ez diralako eta ez dakizulako hurrengo urtean barriro zabaltzeko gauza izango zaren".

Aztarna handia

Nuriak orain dala lau urte ezagutu eban Asociación de amigos Belüba Lüba Füreñdei alkartea. Guatemalan boluntario moduan behar egin gura eban eta han eta hemen galdetu ostean, aitatutako alkartearen Espainiako arduradunagaz ipini zan harremanetan. "Konfiantza eta erraztasun handiak emon eustazan hara joateko. Alkartea erreferentzia-puntua da boluntarioontzat, eta bide bat, gure beharra antolatu eta aztertzeko. Boluntario barriak erakarten be saiatzen gara".

Boluntarioa izatea oso esperientzia aberasgarria dala dino, eta halako proiektu baten parte hartzeko gonbitea mundu guztiari egiten deutso. "Alde batetik, laguntzea emoten dozulako, noski; eta bestetik, baliagarria be badalako, zure burua eta zure gaitasunak hobeto ezagutzeko". Nuriak 31 urte daukaz eta hezitzaile egiten dau behar Urtuella herri ikastetxean. Udako oporrak heltzeko irrikan dago, Guatemalarako hegazkina beste behin hartuko dauelako. Egia esan, Livingstonen, 2012ko udan, euki eban lehenengo esperientzia harek oso aztarna handia itxi eban berarengan. "Hain handia, ezen beharrean lau hilabeterako baimena eskatu eta Guatemala itzuli nintzan hurrengo urteko urtarrean, apirilera arte. Urte horretako urtarrean be hartu neban alkartearen ardura, Estatuko iparraldean. Eta noski, igaz be hegazkinera igon eta hara joan nintzan udan".



Pilota berpizten Larrabetzun

t: Gaizka Eguzkitza / a: Olarreta

“Duela urte batzuk Uritarrak futbol taldeak deialdia zabaldu zuen, herriko umeek futboleant jarduteko. Haiek futbol berpiztu zuten, baina kalte handia ekarri zigun horrek guri, pilotari. Duela urte bi hamar neska inguru baino ez ziren gelditzen paletan jokatzen Olarreta taldean. Nire alaba eta Amaia Etxebarriarena ziren haietako bi, eta gu sartu ginen taldean neskek jokatzen jarraitu ahal izateko, apur bat taldeari eusteko”. Horrela azaldu digu Alberto Rodríguezek zelan sartu zen Olarreta taldean.

Denboraren poderioz, guraso batzuek bat egin zuten Alberto eta Amaia-ren ahaleginarekin, eta guztion artean behin betiko bultzada eman zioten taldeari. “Uritarrak futbol taldeak egin zuen moduan, geuk ere pilota eta Olarreta taldea bultzatzeko kanpaina egin genuen herriko umeen artean, eta erantzuna oso ona izan zen. Gaur egun neska-mutil larrabetzuar gehienek kirol biak egiten dituzte: pilota eta futbola. Are gehiago, Uritarra futbol taldearekin hitz egin dugu eta datorren urterako entrenamendueta-ko egunak koordinatuko ditugu, umeak bietara joan ahal izateko”.

Gorka Saratxu da Olarretaren alde lan egin zuten guraso haietako bat, eta gaur egun, baita Olarreta pilota elkartearen

OLARRETA LARRABETZUKO PILOTA ELKARTEA

Olarreta pilota elkarte 1999an sortu zen Larrabetzun, baina duela urte batzuk arazoak izan zituzten, ez zegoe-lako nahiko ume. Guraso batzuek taldeari eusteko eta, ahal den neurrian, berpizteko ardura hartu zuten, eta gaur egun argi dago lortu dutela helburua.



presidentea ere. “Guztira, 80 pilotari dau-
de Olarretan, eta, hainbeste direnez, el-
karatearen egitura teknikoa eta adminis-
tratiboa sendotu behar izan genuen: bes-
teak beste, diruzaina, monitorea, tekni-

koak eta gurasoak ditugu, eta guztien ar-
tean aurrera eramaten dugu taldea”, esan
digu Gorkak.

Pilotari gehienak larrabetzuarrak dira,
hainbat adin, maila eta modalitatetakoak:

ziurtagiriaren **elkartea**

baieuskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

/baieuskarariziurtagiria

@baieuskarari

www.baisarean.org



Oina: Goian, eskuinaldean, Olatz Arrizabalagak eta Ane Villanuevak, eta ezkerrean, behean, Egoitz Leginak eta Asier Del Río osatutako bikoteak, Erlantz Garcia monitorea-kin batera. Bikote biek irabazi zuten GRAVNI Txapelketaren finala, gomazko paleta modalitatean.



sei urtetik 40 urte bitartekoak, eskupilotariak, gomazko eta larruzko paletan aritzen direnak, eskolako kirolean ibiltzen direnak, federatuak... Entrenamenduak normalean astean birritan egiten dituzte eta, taldekoek aipatu diguten moduan, oso giro polita dago kide guztien artean: batzarkideak, monitorea, pilotariak... "Oso garrantzitsua da hori, taldea behar bezala kudeatzeko".

Olarreta kirol taldea izan arren, euren irtiz, irabaztea ez da garrantzitsua. "Guk ez dugu nahi umeak lehiari sartzea bakarrik, guk hezi egin nahi ditugu umeak: ikasi behar dute irabazten eta

galtzen, kontrako pilotariak errespetatzen... Eta oinarri hori barneratzen badute, gu pozik. Gazte zintzo, kirolari eta osasuntsuak nahi ditugu. Hori entrenamenduz entrenamendu landu behar dugu. Gu etorri baino lehen taldean egon zirenek oinarri horiek ezarri zituzten eta guk filosofia berberari eutsi diogu", aipatu du Gorkak.

Garaipenak

Eta lan horrek guztiak aurten eman ditu fruituak; hau da, txapelak. Esate baterako, Egoitz Leginak eta Asier Del Río osatutako bikoteak GRAVNI Txapelketaren gomazko paleta modalitatearen finala irabazi zuten gazte mailan. Gainera, Olatz Arrizabalagak eta Ane Villanuevak ere ekarri zuten txapela Larrabetzura, txapel-

"Guk ez dugu nahi umeak lehiari sartzea bakarrik; guk hezi egin nahi ditugu umeak"



pelketa eta modalitate berean, baina 22 urtez azpiko kategorian. "Neskek eskarmentu handia dute eta euren txapelak ez gaitu ustekabeen harrapatu. Mutilena, aldiz, ez zegoen batere argi. Hasiberriak dira eta finala oso gogorra izan zen. Partidaren azken txanpan 19-24 izan zen markagailua, baina sei tanto jarraian egin zituzten eta azkenean 25-24 irabazi zioten Nafarroako bikoteari".

"Beste final batzuk jokatu eta galdu egin ditugu, baina tira, pozik gaude gazteek lan txukuna egin dutelako. Garaipena ez da helbururik garrantzitsua, baina agerian uzten dute atzean dagoen lana, seriotasuna... Gainera, txapelek ilusioa ekartzen die gazteei eta pilotarako zaletasunari eusten diote". Horretarako, ereduak ere badira onak. Esate baterako, Adrián López pilotari larrabetzuarra sendo dabil zaletu mailan, eta duela urte batzuk Bizkaiko Klub Lau t'erdiko Txapelketa irabazi zuen. Adrián profesional mailan debuta egiteko zorian ibili da. "Bere adineko pilotaririk ez dugu, baina umeak erreferentetzat hartzen dute". Pilotari dagokionez, Olarreta taldea ere bada erreferentzia Larrabetzun.

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion **NA**
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Móbilak: 686 67 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GAZTOKINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala
Telefona 94 454 07 66 Mungia etorbidea, 25
Fax 94 454 14 16 48180 DERIO



t: G. E. / a: Idoia de Andrés

Frontoiaren 30. urteurrena

Larrabetzuko frontoiak 30 urte bete ditu aurren, eta Olarreta Pilota elkarteak, noski, bat egin du ospakizunekin; are gehiago, Udalarekin eta Xaker zein beste herriko talde batzuekin batera antolatu ditu ospakizunak. "Larrabetzuko umeak oso era naturalean etortzen dira frontoira, normalean zabalik dagoelako. Frontoia herriko beste plaza da, baina estalia, herriko areto estali bakarra, hain zuzen ere. Frontoia oso lagungarria da batez ere euria egiten duenean, eta batez ere guraso eta umeentzat. Neguan jendea sartzen da jolastera eta babestera. Eta frontoian ez da bakarrik pilotan jokatzeko, ez horixe! dantzak, Inauterietako desfilea, antzerkia, umeentzako jolasak, saskibaloia, bertsolariak, aizkolariak..." esan digu Gorka Saratxu Olarreta taldeko presidentek.

Guztira, hiru pilota-jaialdi antolatu dira, urteurrena ospatzeko. Lehenengoa maiatzaren 15ean egin zen. Gaztelumendi abesbatzak saio bat eskaini zuen, eta ondoren, frontoiaren garrantzia azpimarratzen duen bideo bat ikusteko aukera egon zen. Geroago, herriko pilotari batzuek ezohiko partida bat jokatu

zuten. Izan ere, Itallen bertso eskolako ikasleak botilero aritu ziren eta bertsoak tartekatuz zituzten partidaren zehar. Eguna borobiltzeko, gauean pala partida laburrak jokatu ziren formatu amerikarrari jarraituz, hau da, ikusleek apustuak egiteko aukera izan zuten. "Oso borobila izan zen jaialdia. Abesbatzak barruan abestu

arren, primeran entzun zen. Eta bertso-pilota partida berezi hura ere oso polita izan zen. Bertsolariak zein pilotariak fin ibili ziren eta ikuskizun eder-rra eskaini zuten".

Bigarren jaialdia maiatzaren 23an egin zen. Goizean, oroimenezko ekitaldi batek eman zion hasiera jaiari, eta ondoren, Bizkargi dantza taldeak emanaldi txiki bat eskaini zuen. Jaialdi horretan, Larrabetzuko erronka bota zion Zornotzari, eta herri bien arteko pilotariak pilota partidak jokatu zituzten hainbat mailatan. Indarrak berreskuratzeko, herri bazkaria egin zen, eta arratsaldean, pala partidak jokatu ziren. Azkenik, abuztuan, Andra Mari jaietan, hirugarren jaialdia egingo da, eta bertan pilotari profesionalak arituko dira.



"Larrabetzuko frontoia herriko beste plaza da, baina estalia"

lagatzu eguna

“Erreferente bat gara; txikia, baina hor dagoana”

MARISOL BILBAO ELGEZABAL | berbalaguna

Ikasturtearen azken txanpan gagoz eta Marisolengana jo dogu, Berbalagun egitasmoaren inguruan daukan eretxia ezagutzeko. Sondikoztarra eguenetan batzen da taldekideakaz, pasieran ibilteko eta solasaldi ederrak eukiteko. Euskeraz.

Bosgarren urtea da Berbalagun egitasmoan parte hartzen dozuna.

Irakasle ibili naz Larrabetzuko eskolan eta erretiroa orain dala sei urte hartu neban. Lehenengo urtean apur bat “hara eta hona” ibili nintzan, eta gero Berbalagun egitasmoan parte hartzeko aukerea izan neban. Nire helburua euskerearen inguruan zerbait egitea zan, hizkuntza mantendu.

Altzora Sondikako euskera alkartearen kidea be bazara. Badago euskeraz bizitzeko aukerarik herrian?

Gero eta aukera gehiago dagoz. Halanda be, Sondika Txorierriko beste herri batzukaz alderatzen bada, esan beharra dago asko galdu dala. Nahiz eta berton euskaldunak egon. Edadekoek, esate baterako, badakie, baina euskeraz bakarrik egoera zehatz batzuetan egiten dabe. Herriko merkataritza eta zerbitzuei jagokenez, bada, danetarik dago. Persona batzukaz edo leku batzuetan euskeraz egin zeinke, baina euskeraz bizi izatea? Ez, oraindik ez.

Zer da Berbalagun?

Aukera bat, lagunen artean eta giro polit baten, euskeraz bizitzeko. Baita lagun barriak ezagutzeko aukerea bat be; lagun barriak eta, gainera, euskeraz. Gure euskara mantentzen dogu eta dakiguna besteei helduerazoten deutsegu, baina horrezaz gainera, berbalagunok batzen garen bakotxean erreferente bat be bagara; txikia, beharbada, baina hor dagoana. Eta uste dot hori oso inportan-

tea dala, izan be, gero, eta adibide bat ipintearren, trenean jenteagaz egiten dozu topo, eta dakienek euskeraz zuzentzen dira zugana; zu be euskeraz hareengana... Eta, beharbada, ez dakienek be berba batzuk esaten deutesuek euskeraz: egun on, gero arte... Garrantzitsua da halako egitasmoak egotea, erreferenteak diralako eta sare gero eta handiagoa egiten dalako.

Hitz egin zure taldearen gainean.

Hasieran zortzi lagun baginan be, gaur egun bost lagun biltzen gara, egue-

“Gero eta aukera gehiago dagoz Sondikan euskeraz aritzeko, baina bizi izatea? Ez, oraindik ez”

“Danon berbak etxean zein kalean entzutea ezinbestekoa da; etorkizun euskalduna gure esku dago”



netan eta ordu batez. Baina egun batzuetan, momentu eta aukeren arabera, jente gehiago dator. Emakumeak gara, 60 urtetik gorakoak eta inoiz bateren bat gazteagoa dana be badator. Eguraldi ona bada, ibiltera urtetan gara; osterantzean, kafetegian batzen gara. Egia esan, ez dogu ezer berezirik prestaten ordubete horretan egiteko. Gaiak beti ateraten dira, naturaltasunez, albisteak, errezetak... edo zerbait interesgarria irakurri ezker, bada, hori be berbagai ipinten dogu. Dana dala, nahiko nasai hartzen dogu: gaur ezin bagara Berbalagunera joan, ez da ezer gertatzen.

Euskera mailari jagokonez?

Taldekide bi euskaldun zaharrak dira eta, nire ustez, egundoko iturria dira, hareengandik elikatu eta ikasteko. Beste bi euskaltegian dabilz ikasten, ilusino handiagaz.

Eta zu?

Euskaldun barria naz. Sondikan bizi nazen arren, Erandiogoikokoa naz eta gogoratzen dot beti euki dodala zeozelango lotura euskereagaz eta, jakina, euskal kultureagaz. Baina gazteleraz egiten gen-



**berba
lasun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

duan, eskolan, lagunakaz... Gero, nire bizitzaren momentu zehatz batzuetan, eus-kara ikasteko ahaleginak egin nebazan eta orain dala 37 urte-edo euskaldundu nintzan. Gainera, suerte handia euki dot, 30 urtean herri euskaldun baten lan egin dodalako, lankide euskaldunakaz.

Euskaldun zaharrak, barriak, ikas-ten dabilzanak... Alkarri ulertzeko arazorik?

Ez, ez horixe! Egia da euskaldun barri batzuk euskaldun zaharrei ez ulertzearen bildur dirala, eta nahiago dabela beste euskaldun barri baten ondoan ipini, baina nik ez dot uste hori arazoa danik. Zeozer ulertu ez bada, astirago errepika-ten da eta kitu.

Lehen esan dozu euskaldun zaha-rrengandik asko ikasten dala; euskal-dun barriengandik?

Euskara formalaz hitz egiten bado-gu, hareen ekarpena ez da oso handia, beharbada, oraindik elikatu behar dira-lako. Baina beste ekarpen mota bat egi-ten dabe: euren ilusinoa. Eta gero, noski, euren parte-hartzea eta taldera ekarten dabezan gaiak-eta be oso inportanteak dira. Orduan, gauza horreetatik guztietati be ikasten da azkenean.

Zeozeren falta igartzen dozu?

Ez. Ekintza pilo bat antolatzen dira: beste herrietako berbalagunakaz afa-riak, urteerak, ikastaroak... Hainbeste dira, ezen nik behintzat ezin izaten

dodan guztietan parte hartu. Dana dala, eta pizgarri moduan, gustauko litxakit inoiz beste talderen batekin batzea, gurasolagunakaz... Izan be, batzuetan, eta batez be alkarregaz hainbeste urte emonda, bada, beste eragingarri bat behar da.

Ikasturtea amaitzear dago. Orain-dik goiz da hurrengoari buruz hitz egi-teko, dana dala, jarraitzeko prest?

Bai, jakina! Bestalde, Sondikako eus-kaldun guztiak euskeraz berba egitera animau gura dodaz. Gure herria gero eta euskaldunagoa izateko, danon berbak etxean zein kalean entzutea ezinbeste-koa baita. Etorkizun euskalduna gure esku dago.

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA

ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izaguz Facebooken

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Gelbi-ikusiak, orokortasun
Auzokoen kumutatuak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegok eta lokalak
Oima emaitzako garbiketa
Bazterrak
Zahar bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Hiru erronka teknologiko



t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Apirilean, Euskal Herriko maila teknologikoaren inguruko hitzaldia eman nuen Zamudion. Hitzaldian, egungo egoeraren azterketa sintetizatua egin nuen eta hiru erronka izan nituen hizpide: energia, I+G+b eta hezkuntza/trebakuntza. Labur esanda, Estatu mailan gaizki ez gauden arren, oraindik lana egiteko daukagu Europako herrialde bikainetara hurbiltzeko. Baina egungo egoeran luzatzeko lekuri ez daukadanez, gehiago kezkatzen naute erronketan sakonduko naiz.

Energia

Menpekotasun itzela dugu arlo honetan. Hidrokarburoak ditugu energia-iturri nagusi, baina gure inguruan ez dago petrolio, ikatz edo gas naturalik (fraking-ari buruz beste egun batean arituko gara). Horri aurre egiteko bidea hidrokarburoetatik askatzea da, energia eolikoa, mareomotrizia, hidroelektrikoa, eguzkikoa, biomasa eta horrelakoak ikertuz eta garatuz. Alde ona da gure inguruan teknologia ho-

rietan diharduten hainbat enpresa eta ikerketa eta teknologia-zentro daudela; alde txarra, aldaketa nahitaez prozesu geldoa izango dela, oraindik konponbide erraza ez duten arazoak baititugu; energia metaketa, kasu.

I+G+b

Estatuko beste eskualdeekin alderatuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzan ditugun adierazleak ez dira txarrak; bai, ordea, Europako estatu aitzindariekin alderatzen baditugu.

Bizi garen munduan bizi gara, eta hura aldatzen ez dugun bitartean, lehia da eragile nagusietako bat. Bezeroek gure zerbitzuak edo produktuak erostea nahi badugu, merkeak edo balio erantsi handikoak izan beharko dira, eta hiru bide nagusi daude hori lortzeko: soldatak "egokitzea", prozesuen eraginkortasuna hobetzea eta balio erantsia bera. Gizarte osasuntsu eta jasangarri baten aldeko apustua egin nahi badugu, ez dut uste aipaturako lehenengo bidea egokia denik. Beraz, I+G+b sustatu beharko dugu, in-

*Pertsonok gara
epe luzera
eraginkorra izango
den lehengai bakarra*

bertsio publiko zein pribatu handiagoa eginez, ikerlarien lan baldintzak hobetuz, bertoko harrobia zaindaz eta kanpoko fitxaketa onak ekarriz, ikerketa politika egonkorra eta eraginkorra ezarritz... Eta horretarako, ezin dugu oinarritzko ikerketa ahaztu. Bestela, nor izango da ezagutzaren jabea? Atzerrian "erosi" beharko dugu, berehalako itzulkinak dituzten teknologiak garatzeko?

Hezkuntza/trebakuntza

Eta badaukat aurreko erronken erantzunetako bat: hezkuntza eta formazioa. BTEKera bisitan datozenei adierazten diegun bezala, gure inguruan dugun lehengai bakarra gu geu gara. Are gehiago, pertsonok gara epe luzera eraginkorra izango den lehengai bakarra. Geu gara erronka guztiei irtenbide egokia bilatzeko aukera bakarra, eta horregatik inbertitu behar dugu lehengai honen garapenean eta lanketan. Adituak behar ditugu zientzian eta teknologian, baita zientzia eta teknologian jantzita dagoen gizartea ere. Ikerketa eta garapena, eta beren ondorioak ulertzeko gai dena, eta ondorioz, politikak adosteko gai dena.

Burujabetasuna eta isolamendua sinonimotzat jotzen dira askotan, baina nik ez dut horrela ulertzen. Mundu globalizatu batean bizi gara, beraz, burujabetasuna elkarlana eta harremanak norekin eta zein mailatan izango dituzun erabakitzean datza. Berdinen eta desberdinen arteko elkarlana goraipatu nahi nuke. Ikerketa guztiak taldean egiten dira gaur egun, eta taldeak diziplina, jatorri, aberri, ikuspegi... anitzekoak izaten dira. Norberaren eta besteen ahuleziak eta indarguturak orekatuz, globalizazioaren aroan, burujabetasuna, harremana eta elkarlana batera joan behar dira.

Francoren soldaduak ez dira gudariak

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Etxean daukadan 1942ko *Dizionario de la Lingua Italianak*, esate baterako, hauxe dakar: A BENITO MUSSOLINI DUCE D'ITALIA FONDATORE DEL'IMPERO. Eta eskaintza era honetara egiten du: "lo pongo con fede e devozione fascista". Ondorioz, barruan datorrena ere hari berekoa da.

Gure egunotako italiarrek ez dute halakorik erabiltzen; hiztegieta edukia bera ere aldatu egiten da-eta.

Euskarako hiztegieta ere lexiko aldaketa handiak egin izan dira eta egingo dira. Ez dezagun pentsatu gure aldian moldaturiko definizioek behin betiko iraungo dutenik. Adibiderako, aukera dezagun tradizio luzeko *gudari* berba. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Adierak eta adibideak deritzanak honela dakarkigu: Gudari: 1) Gerra egiten duen pertsona; sol-

dadua. *Napoleonen gudariak*. 2) Espainiako azken Gerra Zibilean borrokatu zen Eusko Gudarosteko soldadua. *Gudariak Intxorta galdu zuten*. Ostean, *soldadu* berba bazoaz, *Napoleonen soldaduak* topatuko duzu.

Orduan, Napoleonenak *gudariak* bada, zergatik ez Francorenak? Eta beraz, nora heldu gara? Francoren soldaduei *gudari* deitu eta *Eusko gudariak* gara kantatu?

Berez, gudaria soldadua da, baina soldadu guztiak ez dira gudari. Hara zergatik gaurko hiztegi definizioak bihar-etziko zaharkiturik geratuko diren. Gure lexikotan, gudari hitzaz gainera, lehendakari eta ikurrina ere kasu berbera dira.

Finean eta buruan, oraingoz zein izan liteke konponbidea? Bada, *ikastola* eta *eskola* bereizten diren moduan, *gudari* eta *soldadu* bereiztea, baita *lehendakari* eta *presidente* edo *bandera* eta *ikurrina* ere.



RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lizarola garra, 5
48170 Zamudio
94 453 14 49

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Etxeko sukaldaritza

Hegaluzea kipulagaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- 4 hegaluze-xerra
- Kipula 2 (tiratan ebagita)
- Piper berde 2
- 200 ml oliba-orio
- Pipermin gorri bat
- Gatza
- 100 ml ardao zuri

Prestetako erea:

Kipula su ez-titan erregosiko dogu. Er-di eginda dagoanean, piperrak eta pipermina gehituko doguz. Eginda dagozanean aterako doguz. Hegaluzeari gatza bota eta urineztatuko dogu. Barazkiak egin diran oriotan fritituko dogu, su ez-titan, baina gorritu barik. Buelta emon eta ardao botako dogu. Minutu bi pasau ondoren, barazkiak botako deusaguz gainetik. Estalgia ipiniko deusagu minutu pare batean eta eginda daukagu.



Tomateak ahuakatez beteak

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 tomate handi
- Ahuakate 1
- 100 g urdaiazpiko egosia (txikitua)
- 14 ganba egosi (txikitua)
- Limoi-ura
- Maionesa
- Oliba-orioa
- Gatza

Prestetako erea:

Tomateak zurtoina daukien al-detik zabaldu eta koilara batez kenduko deusegu mamina. Hori plater baten ipiniko dogu. Ahuakateari azala eta hazurra kenduko deusegu eta mamina limoi-uraz bustiko dogu, baltzitu ez daiten. Betegarria egiteko, ahuakatearen eta tomateen mamina, urdaiazpikoa, ganbak eta maionesa nahastatuko doguz. Tomateei gatza bota eta nahasteagaz beteko doguz. Tomate bakotxari bere kapelatxua ipiniko deusagu eta oliba-orio zurrustada bat botako deusegu. Hozkailuan eukiko doguz mahaira atera arte.

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

BOLALEKU
JATETXEA

Gardetza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzi Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pina 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

PATXI
KOOP

FAJOS KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra pabilgoa - Zamudio 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 525 587 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitziz 59 - Tel: 94 455 51 00 - Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAYA)



Zer irakurri?

Ane Abaunza Martinez (Lituraturia)

Izenburua: *Ulysses Moore - Denboraren atea*

Idazlea: Pierdominico Baccalario

Marrazkilaria: Iacopo Bruno

Itzulpena: Aitor Arana

Argitaletxea: Mezulari

Orrialde kopurua: 221


Edizio urtea: 2011

Adina: 12 urtetik gora

Liburu hau *Ulysses Moore* bildumako lehena da. Bilduma hori 12 ataletan dago banatuta.

Abenturazko liburu baten osagai guztiak agertzen zaizkigu istorio honetan: liburu zaharrak, deszifratu beharreko mezuak, sekula ere ireki ez den ate ezku-tu bat, pasabide ilun eta arriskutsuak, zarata ezezagunak, abandonatutako itsasontzia... Pertsonaia nagusiak oso erraz irudika daitezkeen deskripzioen bidez bereiz ditzakegu: alde batetik, hiru neska-

Denboraren Atea



mutiko, Jason, Julia eta Rick, abenturak izateko irrikan; eta bestetik, itsaslabararren ertz-ertzeko etxea, giltzaz itxitako gela misterioz beteta. Istorioa egun bakar batean gertatzen da eta beste abentura

baten atarian utziko gaitu... gehiago jakiteko irrikan.

Liburu atsegina da, fantasiaz blai, azkar eta gogotsu irakurtzen dena. Kapitulu motzak eta biziak ditu: ez da batere zaila irakurtzeko. Marrazki lagungarri zoragarriak ere baditu. Abenturazko lehen liburu aproposa izan daiteke: irakurtzen baduzu, hurrengo batzuk ere irakurri nahiko dituzu.

Bilduma Txorierriko liburutegietan aurki dezakezue, eta aukera polita izan daiteke Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpainen parte hartzeko. Kanpaina Txorierriko euskara elkarteek antolatu dute eta ekainaren 30era arte egongo da martxan. Euskaraz irakurtzeagatik opari bat emango digute saritzat. Hala, liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartu eta hori itzultzean irakurle-fitxa bete beharko dugu. Trukean, erosketa-txeke bat emango digute, euskarazko beste liburuaren bat % 25 (edo % 50) merkeago eros dezagun.



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



TRIPPY
TABERNA

Especialitatea:
GIN TONIC

Beheko kalea - DERIO



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Erakusketak

Sondika

- > Eskulanak. Ekainaren 14ra arte, eskulan tailerrean.
- > Egurrezko tailuak. Ekainaren 3tik 17ra, erakusketa aretoan.

Derio

- > Derio irudietan. Ekainaren 9tik 30era, Kultur Birikan. K-Toñoren eskutik.
- > Harley-Davidsonen argazkiak. Ekainaren 10etik 25era, Kultur Birikan. Julián Redondoren eskutik.
- > Eskolako Agenda 21: 2014-2015 ikasturtea. Ekainaren 12tik 22ra.

Hitzaldiak

Sondika

- > Zumalacárregui. *Su figura y su significado* Enrique de la Peñaen liburua aurkeztea. Ekainaren 17an, 19:30ean, Kultur Etxean.

Derio

- > *Alcaldeando* Alberto Ruiz de Azuaren liburua aurkeztea. Ekainaren 10ean, 19:30ean, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Eider Rodriguezen *Itsasoa da bide bakarra* liburua. Ekainaren 18an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili eus-kara elkartek eta Udalak antolatua.

Ikastaroak

Sondika

- > Entsaladak. Ekainaren 5ean, 19:00etan, Kultur Aretoan. Izena ematea: maiatzaren 31 baino lehen (635753595).

Zamudio

- > Zen meditazioa. Ekainaren 12tik 28ra. Izena ematea: ekainaren 10a baino lehenago, Udaletxean.

Ikuskizunak

Derio

- > Antzerkia. Ekainaren 16an, 18:00etan, Gurea Aretoan. Kukue antzerki eskolaren eskutik.

Irteerak

Sondika

- > Bakio – Gaztelugatxe – Bakio. Ekainaren 7an. Izena ematea: ekainaren 3ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Lezamako trenbide zaharra. Txirrin-txirrin elkartek eta Gazte estazioak antolatua. GR Bizkaia kostaldeko ibilbidea, Arroeta
- > mendi taldeak antolatua. Ekainaren 14an.

Lezama

- > Europako mendiak. Ekainaren 12an, 17:00etan, Herriko plazan. Asteburu osoko irteera, Lezama Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Aralar. Ekainaren 27an, 9:30ean, eskolara. Lezama Gailur mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Urkiola. Ekainaren 13an, Gure Etxeak antolatua.

Jaiak

Zamudio

- > San Zenon. Ekainaren 23an, Galbarriatu auzoan.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an, Elexalden.

Kirola

Sondika

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 6an, goizean, Artebe eta Goronda Beko kiroldegietan.

Derio

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 6an, 11:00etan, kiroldegian eta frontoian.

Larrabetzu

- > ALIND/UBIE elkartearen aldeko futbol txapelketak. Ekainaren 12tik 14ra, Uritarra taldeak eta ALIND/UBIE elkar-teak antolatua.

Lehiaketak

Derio

- > Mihiluzearen finala. Ekainaren 5ean, 18:00etan, Kultur Birikan.

Musika

Larrabetzu

- > Biolin kontzertua, Musika Eskolako ikasleen eskutik. Ekainaren 4an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Ikasturte amaierako kontzertua, Musika Eskolako ikasleen eskutik. Ekainaren 18an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Bestelakoak

Derio

- > Bigarren eskuko produktuen azoka. Ekainaren 7an, 09:00etatik 14:30era, Sollube kalean. Txoriberri kultur elkartek antolatua.
- > Dantza. Ekainaren 7an eta 28an, 18:00etatik 20:30era, kanpoko frontoian. Nagusien etxeak antolatua.

Zamudio

- > Uda gazteak programan izena ematea: ekainaren 10era arte, Gazte estazioan.
- > San Pedroetako plater-tiroko saioa. Ekainaren 20an, Teknologia Parkeko tiro zelaian, Ehiza elkartek antolatua.
- > Mungiako jaietara joateko autobusa. Ekainaren 26an eta uztailaren 3an.

Larrabetzu

- > Udalekuetan izena ematea. Ekainaren 1etik 5era, Anguleri kultur etxean.



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

STIHL®**VIKING®****EZAGUTU GURE**

ESKAINITZA PAREGABEAK!

GAMA OSOAN**BELARRA
MOZTEKOAK****299€** TK
AURRERA**HESIAK
MOZTEKOAK****99€** TK
AURRERA**MOTOZERRAK****199€** TK
AURRERA**MUNDUKO TXAPELDUN BATI IRABAZTEKO GAUZA ZARELA USTE DUZU?****Frogatu www.STIHLRACE.com webgunean
eta OPARI ESCLUSIBO hau irabazi!****STIHLRACE***Sustapenak 2015eko uztailaren 31ra arte balio du. Baldintzak www.stihlrace.com webgunean ikusgai**DISTRIBUIDOR
PREMIUM****STIHL®****BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIARAKO****agrojardín**
*Astikene***Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA**
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com